

2017ko maiatzaren 25 eta 26an
GASTEIZ



Biltzar nagusia



Antolakuntza
PONENTZIA






Antolakuntza

PONENTZIA

PONENTZIA HAUEN JATORRIZKO BERTSIOA EUSKARAZKOA DA. HORTAZ, TESTUAK DOI-DOIAK EZ DIREN KASUETAN EDOTA INTERPRETAZIO EZBERDINAK EGIN LITEZKEEN PUNTUETAN, EUSKARAZKOA IZANGO DA EDOZEIN XEDETARAKO BALIO DUEN BAKARRA.

LA VERSIÓN ORIGINAL DE ESTAS PONENCIAS ES EN EUSKARA. POR TANTO, EN LOS CASOS EN QUE LOS TEXTOS NO SE AJUSTEN COMPLETAMENTE O SI DIERAN PIE A DISTINTAS INTERPRETACIONES, LA VERSIÓN EN EUSKARA SERÁ A TODOS LOS EFECTOS LA ÚNICA VÁLIDA.





Aurkibidea

1. SAR HITZA.....	7
2. ANTOLAKUNTZA BIRPENTSATZEN.....	9
2.1. Garatuz doan antolakuntza	9
2.2. Klase subjektu berria osatzeko antolakuntza	9
2.3. Ekintza sozio-sindikal integralerako antolakuntza.....	10
2.4. Balio feministetan oinarritutako antolakuntza.....	11
2.5. Langileok burujabetza prozesuaren protagonista bihurtzeko antolakuntza	12
2.6. Komunikazioaren aroan eragiteko antolakuntza.....	13
3. ERABAKI NAGUSIAK	15
3.1. Sindikatuaren izaera definitzen duten balioak gaurkotu	15
3.1.1. Sindikatu feminista: praktika feministara jauzia	15
3.1.2. Sindikatu nazionala, hiru esparruetan eragiteko gai	15
3.1.3. Kontrabotere sindikatua, herri boterea sortzea helburu	15
3.1.4. Sindikatu independentista: nortasun ikurra baino gehiago.....	16
3.1.5. Sindikatu sozialista. Ekosozialismorantz.....	16
3.1.6. Sindikatu euskalduna eta euskaltzalea	17
3.1.7. Sindikatuaren autonomia: askapen prozesuan, klase interesen bermea.....	17
3.1.8. Egitasmo estrategikoa eta eredu sindikala: sindikatuaren barne aniztasuna	17
3.2. Sindikatuaren eraldaketa feministari berrekin	17
3.2.1. Bizitza eta pertsonak erdigunera ekarri	17
3.2.2. Gure praktika feminista gaurkotu.....	18

3.3. Sindikalismo berria egiteko, federazioak indartu.....	18
3.3.1. Funtzioak	18
3.3.2. Federazioen banaketa.....	19
3.3.3. Sektorializazioa	19
3.3.4. Antolaketa eta funtzionamoldea	19
3.4. Erronka berria: Ekintza Sozialeko egitura.....	20
3.4.1. Funtzioak.....	20
3.4.2. Antolaketa	21
3.5. Afiliazio politika berria: politika iraunkor eta planifikatua	21
3.5.1. Afiliazioa, sindikalismo eraldatzailearen oinarria: balioa eman, zabaldu, aktibatu	21
3.5.2. Afiliazioa sindikalizatutako eremuetan	22
3.5.3. Afiliazioa sindikalizatu gabeko eremuetan.....	22
3.5.4. Afiliazio kuotak: egoera ezberdinei erantzuteko	22
3.6. Tokian toki LABkideak saretu: afiliatuen komunitatea eta antolaketarako esparruak.....	22
3.6.1. Afiliatuen komunitatea: klase elkartasunaren ernamuina, eredu berri baten akuilua	22
3.6.2. LABkideen antolaketarako esparruak	23
3.7. Sindikatuaren barne bizitza aktibatu/indartu.....	24
3.7.1. Militantziaren (delegatu/afiliatuen) parte hartzea indartu sindikatuan.....	24
3.7.2. Gogoeta eta erabaki marko orokorrak indartu.....	24
3.8. Sindikatua, langile sektore ezberdinen bitartekoa	25
3.8.1. Sindikatuan kolektibo ezberdinei lekua egin.....	25
3.8.2. Elkarlan akordioak/aliantzak	26
3.9. Zeharlerroak garatu.....	27

3.10. Langileekiko komunikazioa indartu.....	28
3.10.1. Paradigma berria: denok gara komunikazioa.....	28
3.10.2. Komunikazio ardua sindikatuko esparru nagusietan txertatu.....	28
3.10.3. Langileekin zuzeneko komunikazio bideak indartu.....	28
3.11. Erabakiak garatu ahal izateko egokitzapenak.....	29
3.11.1. Eskualdeko Idazkaritza: inplementaziorako egitura konfederala	29
3.11.2. Antolakuntza plana. Antolakuntza Plenarioa eta Eraketa Lan Taldea.....	29
3.11.3. Prestakuntza arloa berregituratu.....	29
3.11.4 . Aholkularitzak berregokitu eta indartu	30
3.11.5. Nazioartea	30
3.11.6. Zuzendaritzaren berrikuntza: Komite Exekutiboa eta Nazio Komitea.....	31
4. FUNTZIONAMOLDEA.....	33
4.1. Plangintza: errealitatea aldatzeko giltza	33
4.2. Gune bakoitzaren funtzioa plangintzari begira	33
4.3. Liberatu eta ordezkarien papera.....	34
4.3.1. Sindikatuko liberatuak.....	34
4.3.2. Sindikatuko ordezkariak	35



1. SAR HITZA

(1) Sindikalismoa krisian dagoela esaten da maiz. Eta egia da borroka sindikala egiteko baldintzak asko zaildu direla kapitalak hartutako erabakien ondorioz. Elkarrizketa sozialaren sindikalismoa hondoratzen ari da: kontraboterea izateari utzi zion aspaldi eta orain kapitalak amortizatu egin du. Sindikalismo eraldatzaileak, aldiz, kontraboterea izateko bokaioari eutsi dionez, bestelako indar eta anbizioz ekin diezaioke ireki berri den garaia.

(2) Horregatik esan dezakegu, oztopoak oztopo, LAB osasuntsu heldu dela 9. Biltzar Nagusi honetara. Belaunaldi berriak sindikatura gehitu dira eta sindikatua bera eraberritu dute.

(3) Sindikatuaren egiturari erreparatuta, esan dezakegu belaunaldi aldaketa arrakastatsua izan dela; lantokietan, aldiz, ez da zailtasunik falta ondare sindikalari segida eman eta belaunaldien arteko ikuspegiak uztartzeko orduan.

(4) Edozein kasutan ere, sorrera, kontsolidazio eta belaunaldi aldaketaren faseen ondotik, esan daiteke laugarren fasea irekitzeko prest dagoela LAB: sindikalismo berriarena, hain zuzen ere.

(5) Inoiz baino ordezkari handiagoa dauka LABek. Bigarren sindikatu bihurtu da EAEn, Nafarroan %15eko langa historikoa gainditu du eta Ipar Euskal Herrian gero eta babes handiagoa dauka. Bistan da azken urteotan pairatutako erasoaldi kapitalistaren aurrean emandako erantzunari esker, LAB erreferentziala dela langile sektore askorentzat.


(6) Hala ere, bozketetan bildutako babes hori guztia aktibatzeke zailtasunak nabariak dira. LABen hazkundearen ondorioz oinarri sozialaren eta egituraren arteko tartea handitu da. Joera hori nabarmenagoa da hiriburuetan eta eskualde handietan: sindikatuaren barne bizitza egoitzetan lan egiten duten liberatuen eta delegatu kopuru mugatu baten artean garatzen da. Lantoki, federazio edo esparru ezberdinetako LABkideen arteko komunikazioa eta elkarrekintza gutxitu da. Eta gure parte hartze eta mobilizazio maila, oro har, apalegia da. Honen ondorioz, LABen potentziala ez da behar bezala askatu oraindik orain.

(7) Esan dezakegu LABek langileen babesa jasotzen duela, sindikatuak ekintza sindikala bideratu dezan; alabaina, LABek martxan jarri nahi duen ekintza sindikal eraldatzaileak arrakasta izateko, langileak dira aktibatu behar direnak. Guretzat helburua ez da inoiz izan sindikatua bera; hala balitz, esan genezake inoiz baino hobeto gaudela. Guretzat sindikatua tresna da, lan eta bizi baldintzak eraldatzeko tresna.

(8) Horretan saiatzen ari gara azken urteotan. Ekintza sindikala berri dugu, lantokiz lantoki langileekin zuzenean komunikatu, antolatu eta borrokatzeari garrantzia emanda. Sindikalismoaren ohiko bideak oztopatu dituztela jakitun, bide berriak arakutzen ari gara, komunikatzeko molde berriekin. Era berean, kalea astintzen saiatzeko elkarlanean ari gara beste eragile sozial eta sindikalekin, Karta Sozialean eta beste hainbat ekimenetan.

(9) Halere, zailtasunak ditugu langileria osatzen duten sektore guztietara heltzeko. Urratsak egiten ari gara sektore feminizatuei begira, zerbitzu pribatuetan eta soziokomunitarioan. Baina urrunegi gaude oraindik ABLEen bidez lan egiten dutenen langileengandik, bekadunengandik, etxeko langileengandik, lantoki txikietako prekarioengandik.

(10) Ez zaizkigu ideiak eta gogoia falta. Areago, esan dezakegu LAB aitzindaria izaten ari dela hainbat arlotan, ausardiaz jokatzeko ari dela. Prekarietate aroaren aurrean, sindikalismoa birpentsatzeko prozesua martxan jartzen lehenak izan gara. Gaiatzeko sindikatuak ez bezala, emakumezkoek gehiengoa dute zuzendaritza esparruetan, baina ez gara horrekin konformatzen: nagusiki industriako gizonentzat egindako sindikatu eredua aldatu nahi dugu orain. Lan mundua euskalduntzeko ildoan agendan duen bakarra da LAB. Mugak gaintuz Euskal Herria osoan egituratuta dagoen bakarra.



Mutualitatea alde batera utzi eta lan osasunaren kudeaketa sistema publikora eraman dugu. Informatika arloko multinazionalak alboratu eta software librearekin lan egiten dugu.

(11) Hamaika ekimen dugu esku artean, beraz. Ekimen gehiegi esku gutxirako, agian. Ondorioz, indarrak sakabanatzeko joera daukagu. Gai-orden oparoa dugu, baina puntu bakoitza borobiltzeko aski arretarik ez dugu jartzen.

(12) Horregatik, jende gehiago antolatzearekin batera, hobeto antolatzea da datozen urteetarako dugun erronka. Ongi antolatutako langileriak baino ez baititu lortuko helburu handiak.

2. ANTOLAKUNTZA BIRPENTSATZEN

2.1. Garatuz doan antolakuntza

(13) LABek lau hamarkada baino gehiago ditu eta bere ibilbidean zehar antolakuntza garapen jakina izan du. Gaur LAB dena, testuinguru sozioekonomiko eta politiko ezberdinetan gure egitasmoa garatu ahal izateko hartutako erabakien ondorioa da neurri handi batean. Azken garaiko bi une garrantzitsu ekarri beharra dago gogora:

(14) Alde batetik, 2000. urtean egin zen 5. Biltzar Nagusia dugu. Sorrera garaiaren ondotik, sendotze faseari ekina zion LABek, EAEn %15eko langa historikoa gainditu ostean, Nafarroan %12tik gora jarri eta Ipar Euskal Herrian 2000. urtean bertan sindikatua sortuta.

(15) Erakunde politikoaren antzera lurralde egituraren soilik oinarrituta egotetik, lurralde egiturarekin batera, sindikatu izaerari erantzuten zion antolakuntza sektoriala garatzera pasa ginen. Era berean, 17 eskualdetan oinarritutako egitura konfederala finkatu zen. Sektorializazioak ekintza sindikala eraginkorragoa egiteko aukera eman zion sindikatuari. Bere izaera soziopolitikoari eta berezitasunei eutsita ere, sindikatu moduan kontsolidatzea ahalbidetu zion.

(16) Zazpi sektore izateak zekarren dispertsiorako arriskua ekiditeko, nazio mailan hiru federazio sortzea erabaki zen 2008an egindako 7. Biltzar Nagusian. Sektore bakoitzak lantokietatik nazio mailarainoko bere egitura propioari eutsita, federazioak nazio mailako koordinazio guneak besterik ez ziren.

(17) 2012an Hego Euskal Herrian ezarritako lan erreformak izugarriko aldaketak eragin zituen. Ordurako agorpen zantzuak emanak zituen negoziazio kolektiboan blokeatuta geratu zen. Horren aurrean, sindikatuaren ardatza ekintza sindikalean kokatzea erabaki genuen 2014an eta horrek bere ondorioa ekarri zuen antolakuntza mailan. Negoziazio kolektiboan espezializatutako sektoreetatik, ekintza sindikal berritua egiteko gai izango ziren federazioetara jauzi egin genuen. Sektoreak desagertu egin ziren, Zerbitzu Publikoen Federazioan izan ezik, bertan dagoen aniztasuna eta espezializazio mailari erantzun ahal izateko sektoreei eutsi baitzaie.

(18) Azken bi urteotan, federazioak garatzeari garrantzia handia eman diogu. Federazio bakoitzak bere plangintza eta antolaketa landu ditu, ekintza sindikal berritua sustatzeko asmoz. Emaitei erreparatuta, esan dezakegu 2014an hartutako erabakia egokia izan zela eta Biltzar Nagusi honetan berrestera goaz.

(19) Honekin batera, azken urteotan egindako "Birpentsatzen"¹ prozesuari jarraiki, antolakuntza eredua ere "birpentsatza" goaz, ponentzia politiko-sindikalean finkatutako erronkei erantzun ahal izateko.

2.2. Klase subjektu berria osatzeko antolakuntza

(20) Klase gatazkaren baitan, interes konpartituek eta izaera kolektiboak izan dira herri langilearen indargune nagusia. Horretaz jakitun, sistema kapitalistak subjektua zatitzeko estrategiari garrantzia berezia eman izan dio.

(21) Estrategia horren baitan kokatu behar ditugu instituzio publikoek zein patronala ordezkatzan duten erakundeek identitate kolektiboak eraikitzen dituzten elementuen kontra zabalduko eraso eta ofentsibak. Baita berez konpartituak diren interesak kontrajarri bihurtzeko edo horrela bailiran irudikatuzko saiakera anitzak: enpresa nagusiko eta azpikontratetako langileak berezita, lehen mailako eta bigarren mailako langileak sortzea; zenbait lanpostu sexu-generoaren

¹"Sindikalismoa Birpentsatzen" LABek eta IparHegoa Fundazioak sustaturiko gogoeta prozesua da, 2015 eta 2016 urteetan eginikoa. Hiru jardunaldi nazional eta eskualdekako tailerrak egin ziren eta haietatik sindikalismoak behar duen sakoneko berrikuntzaren gaineko ondorioak atera ziren.

arabera maskulinizatu eta beste batzuk feminizatu izana; etorkinak eskubide gutxiagoko langile bihurtzea; langile euskaldunen hizkuntza eskubideak langile elebarraren hizkuntza eskubideen mehatxu gisa kokatzea...

(22) Horrekin batera, subjektua zatitzeko ondo antolatutako estrategia horretan, azken urteetan gure bizitzaren esparru ezberdinetan **“indibidualizazio prozesuak”** indartu dira. Hor dugu, esate baterako, patronalaren lan harremanetarako eredu berriaren proposamena.

(23) Sistema neoliberalak nork bere bizia bere kabuz gidatu ahal duelako ilusioa bultzatu du. Norbanakoaren “autosufizientzia” kontzeptu ideologikoak “elkartasun” edo “elkarrenganako betebeharrak” kontzeptuak ezabatu eta Ongizate Estatuaren ideia bera arriskuan jartzen du. Baina ideologia honek egunerokotasunarekin egiten du talka: lan munduan zein jendartearen suertatzen diren arazo edo gatazka sistemikoei ezin baitzaie norbanako moduan erantzun edo aurre egin.

(24) Ezin diogu sistemari eman norbera zer garen edo zeren parte garen erabakitzeke ahalmena. “Langileria”, subjektua, zeintzuk osatzen dugun erabakitzea guri dagokigu. Egun langileriatzat hartzen dugun subjektu murriztetik langileriaaren definizio zabal, anitz eta integratzaileari atek zabaltzeko behar dizkiogu, langile subjektibitate ezberdinak barnebilduko dituen definizioari.

(25) Lanaren ikuspegi integralari erreparatzea ezinbestekoa da, sistemak ezarritako lan eta enpleguaren arteko dikotomia hautsita: ez da soilik langilea lan merkatuan soldatapeko enplegu bat duena, merkatu arautuan lan egiten duena, hirugarren batentzat lan egiten duena...

(26) Esparru pribatuen etxeko zein zaintza lanen ardura bere gain dituzten emakumeak langileak dira, etxeko langileak, sexu langileak, bere lan indarrak bizi diren autonomoak, lan merkatuan sartu eta atera dabiltzan gazteak, kooperatibistak, nekazariak, etorkinak, langabeak... denok gara langileak, eta denok osatzen dugu Euskal Herriko langileria.

(27) LAB sindikatuari subjektu zabal eta anitz hau kontuan hartuko duten proposamen politikoak landu eta borrokarako eta antolakuntzarako eskaintzak egitea dagokio. Klase subjektu berria osatzeko antolakuntza eskaintza egitea dagokigu, hortaz. Logika horri erantzuten diote dokumentu honen 3. atalean proposatzen diren hainbat erabakik:

- a. 3.6. puntua: Afiliatuen komunitatea: klase elkartasunaren eramuina.
- b. 3.6. puntua: Afiliatuak antolatzeko esparruak: sail sindikalak, sare sindikalak, enpresarteko elkargune sindikalak, lantoki txikiak afiliatuen topagunea, herri/auzoetako elkarguneak.
- c. 3.8. puntua: Sindikatua langile sektore ezberdinen bitartekoa: antolakuntza eskaintzak, elkarlan akordioak, aliantzak.
- d. 3.10. puntua: Langileekiko komunikazio bideak indartu: birak, bisitak, info/formazio gune telematikoen, infoguneak auzo eta herrietan.

2.3. Ekintza sozio-sindikal integralerako antolakuntza

(28) Neoliberalismo patriarkalak ongi baliatu ditu azken krisi sistemikoak, baita berauek ezarritako ezegonkortasuna ere, erasoan sakatzeko. Klase ikuspegitik nahikotzat jo izan ez dugun ongizate Estatuaren eraispen orokorrari ekin zaio botere ekonomiko eta politikotik eta, hortaz, jadanik existitzen ziren pobrezia eta bazterketa egoeretan, emakumeen zapalkuntza berezitan, aberastasunaren banaketa desorekatuan... gehiago sakondu da.

(29) Pentsio publikoen sistemaren kontrako erasoek, etxegabetzeek, zerbitzu publiko zein prestazio eta laguntza sozialen murrizketek, lan erreforma ezberdinek, pribatizazioaren aldeko politikek... pobrezia eta prekaritatea fenomeno orokortu eta egiturazko bilakatu dituzte.

(30) Gauzak horrela, egungo egoeraren dimentsio osoari erreparatuko dion ekintza sozio-sindikala garatzea ezinbestekoa dugu. Enplegua eta lan merkatua erdigunean kokatetik bizitza eta, hortaz, bizi baldintzak erdigunean kokatzera egin behar dugu jauzi. Edozelan, bizi baldintza duinen aldeko borrokan lan eskubide eta lan baldintzen borroka garrantzitsua izaten jarraituko du, bertan gauzatzen baitu kapitalak bere plusbalia handitzeko erasoaldia.

(31) Bizitza erdigunean kokatzeak, zentroan lana —eta ez soilik enplegua— jartzea dakar eta, hortaz, bizitzaren sosten-gurako beharrezkoak diren lan guztien aitortza eta defentsa egitea. Baita eskubide sozialak eta eraiki nahi dugun bes-telako eredu horretarako ezinbestekoak diren politika sozialak gure praktika sindikalean bestelako pisu bat hartzea ere.

(32) Bizitza erdian kokatzeak klase gatazkan paradigma berria ere badakar: gatazka jada ez da enplegu vs. kapitala gisa kokatzen, bizitza vs. kapitala parametroetan baino, eta horrek klase subjektu zabalago eta anitzagoa kontuan izatea dakar.

(33) Lan mundua bera ikaragarri aldatu da. Langile finkoen errealitatea desagertzen ari den neurrian, lan merkatuan sartu eta atera etengabea dauden langileen kopurua handituz doa; beren lan baldintza prekarioak direla medio, lan-tokia antolaketa eta borrokarako esparru moduan irudikatzen ez duten langileak asko dira; lana izanda ere laguntza sozialak jasotzen dituzten langileen kopurua areagotuz doa... Langileen kezkak, interesak eta beharrak anitzak dira, eta ez dira beti lan esparrura mugatzen. Behar horiei guztiei erantzutea, interes horien guztien ordezkaria izatea da praktika sozio-sindikal berriaren erronka.

(34) Ekintza edo praktika sozio-sindikal integrala garatu eta aurrera eramateko beharrezkoa da gure egungo antolakun-tza eredia egokitzea, jakitun baikara egungo federazioen eredia enplegua eta lan merkatuaren logikari erantzuten diola eta ez orain proposatu dugun ikuspegi integral horri. Anbizio hori buruan, garatu ditugu 3. ataleko honako puntu hauek:

(35) 3.3. puntua: Sindikalismo berria egiteko, federazioak indartu

(36) 3.4. puntua: Erronka berria: Ekintza Sozialaren egitura

(37) 3.6. puntua: LABkideak saretu: herri/auzoetako elkarguneak

2.4. Balio feministetan oinarritutako antolakuntza

(38) Gure sindikatua, gainontzeko sindikatuak bezala, gizonak eraiki zuten langile gizonen errealitateari begira eta horien beharrei erantzuteko asmoz. Lan merkatuan emakumeak sartu ahala, sindikatuak ere emakume langileek pai-ratzen zuten egoera espezifikoa erantzuteko beharraz gogoeta egin eta berariazko bitartekoak jarri zituen martxan, Emakume Idazkaritza, kasu.

(39) Lan munduaz gain, emakumeek sindikatu barruan ere jasaten zuten diskriminazio egoerak ekiditeko eta sindika-tuko ateak emakume militanteei ere zabaltzeko, aukera berdintasun plan bat martxan jarri zuen lehenengo sindikatua izan zen LAB. Erabaki hau 2000. urtean hartu zen, 5. Biltzar Nagusiaren testuinguruan. Plan honek sindikatuko militan-teen artean emakumeon presentzia areagotzea eta parekidetasuna lortzea zuen helburu nagusizat, baita emakumeak zuzendaritza guneetan kokatzea ere. Helburu hau oraindik erabat bete ez bada ere, norabide horretan sindikatuan aurrerapauso handiak egin direla nabarmendu beharra dago. 2000. urtean sindikatuaren 101 soldatapeko liberatuetatik 35 emakumezkoak (%34) baziren, egun 207 liberatuetatik 93 (%45) emakumeak gara. Aipatzekoa da, era berean, emaku-meez zuzendaritza guneetan lortu duten presentzia: Nazio Biltzarrean, 150 kideetatik 62 emakumeak dira (%41), Nazio Komitean, 31 kideetatik 19 emakumeak dira (%61) eta Exekutiboan 12 kideetatik 7 dira emakumeak (%58). Ezin dugu ahaztu gure Idazkari Nagusia ere emakumea dela.

(40) Hala eta guztiz ere, lan merkatuan emakumeen presentzia handitzeak eta nolabait "normalizatu" izanak lan merka-tua arautzen duten printzipio eta logiken aldaketa ekarri ez duen bezala, sindikatura emakumeak sartzeak eta zuzenda-ritza guneetan egoteak ere ez du sindikatuaren funtzionatzeko eta antolatzeko eredu androzentrista gainditzea ekarri. Baina egia da, eta hala aitortu behar da, baldintza hobeto jarri gaituela orain erronka horri ekin eta gure praktika feministan aurrera urrats garrantzitsuak egiteko. Beharrezkoa da, beraz, Aukera Berdintasun Planetik Plan Feminista ausart eta eraldatzaile batera jauzi egitea.

(41) Diskriminazioan eta asimetrian oinarritzen den sistema patriarkal-kapitalista gainditu eta justizian zein parekidetasunean oinarrituko den sistema berri bat baldin bada Euskal Herrirako egiten dugun aldarrikapena, koherenteak izan eta geu ere sindikatuan bizitzak eta pertsonak erdigunean kokatuko dituen ereduranzko trantsizioa egin beharrean gaude.

(42) Sindikatua osatzen dugun militanteon zaintza ardurak, beharrak, nahiak... aintzat hartuta, gure militantziarekin uztargari, osagarri eta bizigarri bilakatuko dituen eredia. Kolektibotasunean, korrespontsabilitatean, parte hartzean, kultura komunitarioan... azken finean, balio feministetan oinarrituko den eredia.

(43) Hona hemen trantsizio prozesu kolektibo honetan lagunduko diguten hainbat erabaki:

- a. 3.1. puntua: Sindikatuaren izaera definitzen duten balioak gaurkotu: sindikatu feminista
- b. 3.2. puntua: Sindikatuaren eraldaketa feministari berrekin: Eskola Feminista, Idazkaritza Feminista
- c. 3.3. puntua: Federazioetan zeharlerroak txertatu
- d. 3.4. puntua: Erronka berria: Ekintza Sozialeko egitura
- e. 3.7. puntua: Militantziaren parte hartzea indartu sindikatuan
- f. 3.9. puntua: Zeharlerroak garatu: politika feminista

2.5. Langileok burujabetza prozesuaren protagonista bihurtzeko antolakuntza

(44) Krisialdi ekonomikoaren aitzakipean harturiko erabaki politiko eta erreforma ezberdinek botere ekonomiko zein politikoaren estrategia agerian utzi dute. Herritarron beharrak asebeteko dituen jendarte ereduaren ordeztu, diskriminazioan, bazterketan, prekarietatean, pobrezian eta matxismoan oinarrituriko jendarte eredu sakontzearen aldeko apustu garbia egin dute.

(45) Paris zein Madrilgo Gobernuak inposaturiko lan erreformek langileok historian zehar irabazitako eskubideak elite ekonomikoaren interesen arabera aldagai negoziagarri bilakatu dituzte, aberastasunaren banaketa eredu gero eta desorekatuagoari ateak zabalduz eta langileen erabakitzeke, parte hartzeke zein borrokarako bitartekoak murriztu eta ezabatuz.

(46) Hau guztia gutxi balitz, Gobernu biek gauzaturiko politika publikoek eta hartutako erabaki politiko-ekonomikoek herritarron eskubide sozialak bete-betean erasotu eta larrialdi sozial egoera estuan jarri gaituzte, ongizate Estatu eredia bera kolokan jarrita.

(47) Euskal Herriko jendartearen gehiengoari, euskal langilegoari, egunerokotasunean eragiten dieten gaien inguruko erabakiak geroz eta erabakigune urrunagoetan hartzen dira, geroz eta eredu antidemokratikoagoen bidez, ukazioa eta inposizioa oinarri hartuta. Egoera honen aurrean, inoiz baino garrantzia handiagoa hartu du erabakitzeke eskubidearen aldeko borroka, eskubide hau bere zentzurik zabalenean ulertu eta aldarrikatuz.

(48) Elementu hauek guztiak bestelako jendarte eredu baten alde borrokatzera garamatzate, are eta indar handiagoz. Bizitza eta pertsonak erdigunean kokatuta, herritarron, langileen beharrak asebeteko dituen eredia eraikitzeke, aldiz, egungo estatus juridiko-politikoaren galgalk gaituzte eta Euskal Herri burujabetza prozesu bati ateak zabaltzea ezinbestekoa da.

(49) Aldebakarreko prozesu soberanista batek bakarrik ahalbideratu dezake euskal langile eta herri sektoreen ongizatea lehenetsiko duen aldaketa soziala gauzatzen joatea. Burujabetzarako herri prozesuaz ari gara, hortaz, langileok ezinbesteko protagonistak izango garen prozesuaz. Sindikatua, batetik, kontrabotere posizioetatik prozesu soberanistari ateak zabaltzeke baldintzak sortu beharko ditu, prozesu honetan langileen ekarpen eta protagonismoa hasieratik bermatzen. Bestetik, eskaintza soberanista-independentista horrek langileen arazo eta behar zehatzei erantzuten diela bermatzea ere sindikatuaren egitekoa izango da. LABek, beraz, langileak burujabetza prozesuan protagonista izateke bitartekoa izan behar du.

(50) Norabide honetan daude kokaturik 3. ataleko hainbat erabaki:

- a. 3.1. puntua: Sindikatu independentista: nortasun ikurra baino gehiago
- b. 3.1. puntua: Sindikatu nazionala
- c. 3.3. puntua: Sindikalismo berria egiteko, federazioak indartu
- d. 3.4. puntua: Erronka berria: Ekintza Sozialeko egitura
- e. 3.6. puntua: Tokian toki LABkideak saretu
- f. 3.8. puntua: Sindikatua, langile sektore ezberdinen bitartekoa

2.6. Komunikazioaren aroan eragiteko antolakuntza

(51) Langileria eta sindikalismoaren kontra sistemak zabalduko ofentsiba ideologiko eta mediatikoa bortitza izan da. Langileon eskubide eta interesak defendatzeko tresnak eta bitartekoak suntsitu, desitxuratu eta erabat mugatzen zituztenaldi berean, sindikalismoaren eraginkortasuna zalantzan jarri eta langile klasearen borrokaren balioa auzitan ipini izan da. Argi dago langile klase sakabanatu, desideologizatu eta etsitu bat nahi dutela, beren asmoetan aurrera egitea galaraziko ez diena. Inoiz baino garrantzitsuagoa da, hortaz, langileak aktibatzea, euskal langileriak zein Euskal Herriak behar dituen aldaketen protagonista bilakatzea. Horretarako, langileengandik hurbil egon behar dugu, ideologikoki elikatu eta haiekin norabide bikoitzeko komunikazio/dialektika martxan jarri.

(52) Egungo "komunikazioaren aro" globalizatuak orain arte heltzen ez ginen leku eta pertsonengana heltzeko aukerak ekarri ditu, informazioa zabaltzeko bitarteko berriak martxan jarri, urruntasun fisikoa zein psikologikoa gainditzeko zirrikitu eta ateak zabaldu... horretaz guztiaz baliatu beharko dugu, noski.

(53) Beti ere, zuzeneko komunikazioari balio handia ematen eta bere aldeko apustua egiten. Langileekin aurrez-aurre egoteak, gure mezua geure ahotik entzuteak, beren lantoki eta lan zentroetara hurbiltzen garela ikusteak, gertu gaituztela sentitzeak duen balioaz jakitun gara.

(54) Estrategia komunikatibo integral, planifikatu eta eraginkorrari ekiteko, sindikatua prestatzea da erronka. Gure estrategia komunikatiboari dimentsio berria emateaz ari gara. Finean, langileekiko komunikazio bideak biderkatzea eta indartzea da asmoa eta, hori buruan, planteatu ditugu 3. ataleko ondorengo erabakiak:

- a. 3.5. puntua: Afiliazio politika berria
- b. 3.6. puntua: Tokian tokiko LABkideak saretu
- c. 3.7. puntua: Sindikatuaren barne bizitza aktibatu/indartu: barne komunikazioa, formakuntza eskaintzak, parte hartze eta eztabaida guneak, erabakitze prozesuak.
- d. 3.7. puntua: Gogoeta eta erabakitze marko orokorrak indartu
- e. 3.10. puntua: Langileekiko komunikazioa indartu



3. ERABAKI NAGUSIAK

(55) Estatutuen I. artikuluan LABen nortasun ikurrak laburbiltzen dira. 9. Biltzar Nagusian egiten dugun apustu politiko-sindikalak ikur horien berrikuntza eskatzen du, 40 urteko ondareari eutsita, garai berri bat irekitzera goazelako: gure garaia².

3.1. Sindikatuaren izaera definitzen duten balioak gaurkotu

3.1.1. Sindikatu feminista: praktika feministara jauzia

(56) LABek sindikatu feministatzat jotzen du bere burua eta, ondorioz, feminismoaren balioak bere egiten ditu: bizitza eta bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jartzea; lan erreproduktiboaren aitortza eta banaketa aldarrikatzea; ezkutuko botere harremanak eta emakumeenganako indarkeria mota oro azalaraztea eta borrokatzea; kolektibotasuna eta auzolana balioztatzea; berdintasun formaletik harago, parekidetasun erreala defendatzea, besteak beste. Balio horiek sindikatuaren antolaketan eta praktika sindikalean gauzatzea dugu erronka. Ildo horretan, eraldaketa feminista sustatzea izango da hurrengo urteotako apustu organizatibo nagusietako bat. Aldaketaren tamaina kontuan hartuta, puntu espezifiko bat eskaini diogu eginbehar honi, 3.2. puntua, hain zuzen ere.

3.1.2. Sindikatu nazionala, hiru esparruetan eragiteko gai

(57) Euskal Herriko zazpi herrialdeetan antolatutako sindikatu bakarra da LAB. Bi Estaturen eta hiru administrazioen errealitatearen aurrean erantzuteko gai izan behar du. Bide horretan urrats garrantzitsua egin zen 7. Biltzar Nagusian, Exekutiboan integratutako Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko bokaliak sortzean. 9. Biltzar Nagusi honetan bigarren neurri bat proposatzera goaz: Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko errealitateaz aritzeko gogoeta guneak sortzea. Gogoeta gune horiek Exekutiboaren dinamizaziopean eta Nazio Komitearen zerbitzura egongo dira, bi marko horiek dutelako eskumena LABen ildo nagusien gainean erabakiak hartzeko. Nazio Komiteak gogoeta gune bakoitzaren osaketa eta maiztasuna zehaztuko du. Era berean, beste herrialde baten inguruan (izan Araba, Bizkaia edo Gipuzkoa) aritzeko, unean uneko gogoeta guneak antolatu daitezke.

(58) Hala ere, sindikatu nazionala izatea, hiru errealitate ezberdinei erantzuteko gaitasuna izatea baino askoz gehiago da. Euskal Herria nazio gisa egituratzeko eta kohesionatzeko hiru ekarpen garrantzitsu egin behar ditu LABek: lehenik eta behin, Hego nahiz Iparraldean bizi dugun errealitate eta borrokaren gaineko elkar ezagutza eta elkartasuna indartzea; bigarrenik, mugaren alde batean bizi eta bestean lan egiten duten langileen beharrei erantzun eraginkorrek ematea; eta hirugarrenik, Hego nahiz Iparraldean Euskal Herri osorako baliagarriak diren alternatibak jorratzea. Lehenengo bi ildoak garatzeko, "Euskal langileria mugaz gaindi" egitasmoa martxan jarriko du LABek. Hirugarrena, berriz, zuzendaritzak hartzen duen konpromisoa da; Exekutiboan ez ezik, marko konfederaletan ere lurralde ezberdinetako kideak integratzea lagungarria izango da horretarako.

3.1.3. Kontrabotere sindikatua, herri boterea sortzea helburu

(59) LAB klase sindikatua da, langile klase osoaren interesak defendatzen dituen sindikatua, alegia. Eta horretarako, azken hamarkadetan indartu den kapitalaren botereari aurre egingo dion langile kontraboterea elikatzea du eginkizun. Kontraboterea izateko, lehenik eta behin, klase kontzientzia da beharrezkoa; eta bigarrenik, kontzientzia horretatik abiatutako praktika sindikal borrokalaria.

(60) Antolakuntza eta borrokaren bidez baino ezin daiteke lor langileen boteretzea zein lan eta bizi baldintzen eraldake-

² Biltzar Nagusian hartutako erabakien arabera, estatutuak berrituko dira. Nazio Komiteak erredakzio berria proposatuko dio Nazio Biltzarri eta honek erredakzio hori Biltzar Nagusiko erabakiekin bat datorrela ziurtatu eta bide emango dio.

ta. Ez diegu akordioei muzin egiten, baina badakigu borrokarik gabeko akordioak akordio txarrak izaten direla gehienguan. Lan eta bizi baldintzen eraldaketa posible egingo duten akordioak lortu nahi ditugu. Antolakuntza eta borroka dira horretarako giltzarria.

(61) Kontrabotere gisa aritu nahi dugu, baina ez gara horrekin konformatzen. Frantzia eta Espainiako erregimen kapitalistetan kontraboterea izatetik Euskal Herri burujabeen herri boterea izatera igarotzea da gure xedea. Ez da egun jakin batera itxaron beharrik horretarako. Burujabetza prozesuaren baitan, egungo kontrabotere posizioetatik etorkizuneko herri boterea elikatzea izango da gure etengabeko ariketa.

3.1.4. Sindikatu independentista: nortasun ikurra baino gehiago

(62) Estatu tresna politikoa da. Herriaren burujabetza bermatzeko erabil daiteke, ala herriaren burujabetza kapitalaren interesen menpe jartzeko. Euskal Herria mendean duten bi Estatuak, nola espainiarra hala frantziarra, bigarren helbururako daude diseinatuta. LABek independentzia aldarrikatzen du, Euskal Herriak nazio bezala nazioartean eduki lezakeen adierazpide politiko gorena izan dezan ez ezik, herriaren burujabetza bermatzeko duen Estatu berri bat eraikitzeke ere bai. Horixe da euskal langileen lan eta bizi baldintzak eraldatzeko LABek defendatzen duen bidea.

(63) LABentzat independentismoa eta internazionalismoa txanpon beraren bi aldeak dira. Herri eta pertsona burujabez osatutako mundu berria defendatzen dugu bloke kapitalistek gidatutako harpilaketa inperialistaren aurrean. Helburu horren alde borrokan diharduten gainontzeko herri langileekiko elkartasun internazionalista praktikan jartzen dugu, eta helburu horren alde gurean borrokatzea da mundu berria sortzeko hartzen dugun konpromisoa.

(64) Ildo honetan, LABek eskaintza sindikal independentista egiten die bai langile abertzaleei bai abertzale ez izanda ere, euren lan eta bizi baldintzak eraldatu eta herri burujabetza bermatzeko duen marko berri bat (Estatu bat, azken batean) nahi duten horiei. Eskaintza independentista hori praktika independentistan gauzatu beharra dago. Honela, ekintza sindikalaren bidez hobekuntza zehatzak lortzen saiatzearekin batera, lan eta bizi baldintzak duintzeko Estatu biek ezarritako egiturazko topeak ikustarazi (lan legedia, pentsio sistema, zerbitzu publikoetako estatu arauak) eta horiek gainditzeko beharra jendarteratuko du LABek, euskal langileria dekantazio independentista eraginez. Lantokian erreferenteak diren LABkideek diskurtso independentistaz lagundu behar dute euren praktika sindikal zehatza. Era berean, Ipar Hegoa Fundazioak Estatu propioaren aukera eta beharraren inguruan hasitako lan ildoari bultzada berria emango dio.

3.1.5. Sindikatu sozialista. Ekosozialismorantz.

(65) LABek sindikatu soziopolitikotzat aldarrikatu izan du bere burua, sistema kapitalista auzitan jarri gabe lan baldintzak hobetzera mugatzen diren sindikatuetatik bereizteko. Gehiago esan genezake ildo horretan: LAB sindikatu sozialista da, kapitalismoa gaindituko duen alternatiba sozialista eraiki nahi duen neurrian. Bere gainontzeko nortasun ikurrekin bezala, egunerokotasunean praktika sozialista gauzatzea da erronka: injustizia eta esplotazio mota ororen salaketa aktiboa egitea; klase elkartasuna praktikan jartzea; kapitalismoaren mila aurpegi kritika egitea; gure bizi eta kontsumo ereduaren bidez, kapitalismoa bera indartu beharrean, alternatibak indartzen saiatzea.

(66) Azken aldian, "eko-" aurrizkia azaldu izan da sozialismo hitzari atxikia. Izan ere, kapitalismoa, langileen esplotazioan oinarritutako sistema bidegabea izateaz gain, Lurraren eta bizitzaren biziraupena bera kolokan jartzen duen sistema ere bada. Krisi ekologiko izugarria pairatzen hasi gara eta, kapitalismoak bere horretan jarraituz gero, areagotu egingo da: lehortea, baliabide fosilen agorpena, kutsadura, aldaketa klimatikoa... Krisi ekologikoaren ondorioek eta urrituz doazen baliabideak eskuratzeko gerra inperialistek milioika lagun heriotza ekar dezakete datozen hamarkadetan. Eta horri aurre egiteko modu bakarra da sistema kapitalista gainditzeko eta bizitzaren iraunkortasuna helburu duen eredu sozialista indarrean jartzea.

(67) LABek ekosozialismoaren oinarriekin bat egiten du eta oinarri horien arabera bere praktika sindikala berrikusiko du datozen urteetan. Enplegua ekoizpen mailarekin erlazionatu beharrean, sozialki beharrezkoa den lanaren eta ondasunen banaketarekin lotzea da erronka. Kultura sindikal ekosozialista sortu beharko da horretarako. Jarrera indibidual nahiz

kolektiboak aldatzen joan behar dugu, trantsizio bat eginez. Horregatik diogu sindikatua ekosozialismorantz mugitzera goazela, kontraesanez betetako prozesua izango dela jakitun.

3.1.6. Sindikatu euskalduna eta euskaltzalea

(68) Kapitalak gogoko du uniformizazio eta banalizazio kulturala, ekoizpena deslokalizatu, masa kontsumoa sustatu eta boterea zentralizatzeko baliagarria zaion aldetik. Alternatiba sozialista eraikitzeari begira, aldiz, funtsezkoa da munduko hizkuntza nahiz kultura ondarea babestea eta sustatzea. Euskarak egiten gaitu euskaldun; era berean, euskara bestelako mundu bat eraikitzeo aktibo bat ere bada. Horregatik, hizkuntza eskubideen aldeko borroka langileon borrokaren parte da. LABek herritar eleanitzek osatutako Euskal Herri euskalduna erdiesteko bere konpromisoan berretsi eta lan munduaren euskalduntzeari (LanEus egitasmoari) bultzada berria emango dio.

3.1.7. Sindikatuaren autonomia: askapen prozesuan, klase interesen bermea

(69) LABek bere autonomia aldarrikatzen du edozein alderdi politikoren, instituzioren eta presio-talderen aurrean eta zuzendaritza-organoek onetsitako ebazpenei baino ez die men egingo. Horrela jasotzen da estatutuetan. Eta gainera, LABen autonomia, ezaugarri organizatiboa izateaz gain, Euskal Herrian ireki beharreko burujabetza prozesurako aktibo bat ere bada.

(70) Askapen nazional, sozial eta feministan aurrera egiteko, LABek burujabetza prozesu bat martxan jartzeko apustua egiten du, langileen lan eta bizi baldintzak eraldatu ahal izateko. Bideak helburuaren arabera izan behar duenez, prozesu horrek agenda sozial indartsua eskatzen du. Agenda sozial horretan eragitea edo, bestela esanda, burujabetza prozesuan klase interesak defendatzea izango da LABen bokazioa. Eta horren arabera finkatuko ditu bere aliantzak

3.1.8. Egitasmo estrategikoa eta eredu sindikala: sindikatuaren barne aniztasuna

(71) LABen egitasmo estrategikoa argia da: estatu independente, sozialista, feminista eta euskalduna eskuratzea, euskal langileen askapen osorako tresna gisa. Horixe da ezker abertzalea deritzan esparru soziologikoaren ortzimuga komuna. Eta egitasmo estrategiko horrekiko atxikimenduagatik bat egiten dute langile askok eta askok LABekin.

(72) Alta, beste hainbat eta hainbat langile, egitasmo estrategiko hori osorik bere egin ez arren, LABen eredu sindikal solidario eta borrokalariak erakarrita bilakatu dira LABeko afiliatu, ordezkari edo militante. Eta aholkularitza bila datozen langileak ere badira.

(73) Barne aniztasun hori aberasgarria da eta zaindu beharra dago. Baina horrek ez du esan nahi eztabaida sozial eta politikoa LABetik kanpo geratu behar denik, ezta gutxiago ere. Bere oinarri sozialean gai sindikal, sozial eta politikoen inguruko gogoeta espazioak indartuko ditu LABek, partekatutako gogoetaren bidez ikuspegi eta asmo komunak iruten joateko.

3.2. Sindikatuaren eraldaketa feministari berrekin

3.2.1. Bizitza eta pertsonak erdigunera ekarri

(74) Gure sindikatuak orain arte egindako urratsak ez dira txikiak izan: aukera berdintasun plan bat martxan jarri zuen lehen sindikatua, zuzendaritza gune parekideak dituen sindikatu bakarra, Idazkari Nagusitzat emakume bat izan duen lehen sindikatua eta, momentuz, bakarra...

(75) Gure ibilbide feministari eta egindako urratsei balioa eman, eta hauek sindikatuan aurrera urrats berriak egiteko sortutako baldintzez jakitun, sindikatuaren eraldaketa feministari berrekiteko garaia heldu dela deritzogu. Sindikatu gero eta parekideagoa izatea garaipen handia bada ere, gure erakundearen eredia oraindik androzentrista da erabat.

(76) Gure diskurtsoetan hainbatetan aldarrikatu dugun jendarte eredu berria, guk geuk, etxetik hasita, eraikitzen hasteko garaia da. Enplegua erdigunean kokatzen duen eredutik pertsonak eta bizitza erdigunean kokatuko dituen eredura

trantsizioa egin beharrean gaude geurean ere.

(77) Bizitza eta pertsonak erdigunean kokatzeko funtzionatzeko eta lan egiteko gure egungo moduak ezbaian jartzea dakar, gure militantzia eredu bestelako betaurreko batzuekin aztertzea. Pertsonon beharrianak eta dauzkagun zaintza ardurak kontuan izan eta horiek gure militantzia/lanarekin uztargarri egitea ahalbideratuko duen militantzia eredu bizi-garri eta osasungarriagoa martxan ipintzea da erronka.

(78) Argi utzi nahi dugu kolektibotasunean oinarrituko den militantzia ereduaz ari garela; hortaz, egungo jendarte post-modernoari lotutako balio neoliberal eta indibidualistean oinarritzen den militantziak gurean ez luke lekurik izan behar. Bizitza eta pertsonak erdigunean jartzeak ez du esan nahi norbere bizitza erreferentzia bakartzat jo eta militantzia boluntarismoan oinarritzea, guztiz kontrakoa, baizik.

(79) Militantzia kuantitiboari baino, kualitatiboari erreparatuko dion eredu bultzatu nahi dugu; hau da, militantziari eskaintzen diogun ordu kopuruan baino, eraginkortasunean neurtu beharrekoa. Honek gure lan metodoak, lan ordutegiak... errebisatu eta eraginkortzea ekarri beharko luke.

(80) Argi dugu eredu aldaketa ez dela egun batetik bestera izango, trantsizio prozesu bat beharrezkoa izango dela, eta prozesu hori sistematizatu, planifikatu eta ebaluatzen joan beharko garela. Horregatik, bere garaian Aukera Berdintasun Planarekin egin genuen bezala, orain "Plan feminista" eta "Guztiok Ondo Bizitzeko Plana" martxan jarriko ditugu trantsizio hori norabidetu eta gidatzeko.

3.2.2. Gure praktika feminista gaurkotu

(81) Sindikatu barruan egingo dugun prozesuak kanpora begira, sindikatuaren ekintza sindikalean, diskurtsoetan, aldarrikapenetan, praktikan... ere isla izatea garrantzitsua da.

(82) Sindikatua aldatu egin da; emakumeok gero eta presentzia gehiago dugu, eta gainera, sindikatuaren feminismoarekiko konpromisoa geroz eta indartsuagoa da. Feminismoak berak bilakaera nabaria izan du; proposamen eta alternatibetan asko aurreratu da, batetik, eta, bestetik, Euskal Herrian feminismoaren baitan izandako aliantza estrategikoen feminismoak agenda politiko-sindikalean leku bat izatea lortu dute. Bilakaera ezberdinek beharrezkoa egiten dute egungo gure praktika feminista gaurkotu eta egokitzea, lortu nahi ditugun erronka berriei erantzuteko prestatzea.

(83) Horretarako, ezinbestekoa da egungo Emakume Idazkaritza gaudituko duen "Idazkaritza Feminista" osatzea eta martxan jartzea. Sindikatuaren diskurtso politiko-sindikal feminista garatzea, praktika feminista egokitu eta erronka berriak zehaztea, praktika feminista ekintza sindikalean txertatzea eta mugimendu feministarekin ditugun aliantzetan sakontzea izango dira, besteak beste, Idazkaritza Feministaren egitekoak. Eta, horretarako, Idazkaritzaren aliatuak izango diren emakume militanteak saretzea funtsezkoa izango da.

(84) Sindikatuaren praktika feminista bermatu eta praktika horretan urrats berriak egitea, ordea, ez da Idazkaritza Feministaren edota sindikatuko emakumeon egitekoa bakarrik. Erronka honetan aurrera egitea sindikatua osatzen dugun militante guztion ardura da, gizon zein emakumeona. Prozesuan laguntzeko, sindikatuko emakumeak ahalduntzeko, gure gizon eta emakume militanteak feminismoan jantzeko, sindikatuan Eskola Feminista martxan jartzera goaz.

3.3. Sindikalismo berria egiteko, federazioak indartu

3.3.1. Funtzioak

(85) Federazioak dira ekintza sindikala egiteko sindikatuaren tresna. Era berean, Nazio Komiteak eta Eskualde Idazkaritzek diseinatutako plangintza konfederala lantokietan garatzeko ardura dute.

(86) LABen ekintza sindikal integrala esparru bakoitzera egokitu eta praktikan jartzea dagokie. Lan mundua hainbeste

aldatzen ari den honetan, lan erreformek negoziazio kolektiboaren oinarriak kolokan jarri dituzten honetan, ekintza sindikal irudimentsu, ausart eta berritzailea garatu beharra dago. Beti ere langileen kontzientziazioa eta atxikimendua lortzea edozein ekintza sindikal arrakastatsua izateko oinarritzko baldintza dela jakinda.

(87) Diseinu itxi bat egin eta leku guztietan aplikatzen saiatzeak porrotera garamatza. Horregatik, irizpide konfederal komunetan oinarriturik, ekintza sindikala garatzeko gaitasuna izan behar dute federazioek. Teorizatu, erabakiak hartu, plangintzak egin, praktikan jarri, ebaluatu eta berriz teorizatu; etengabeko prozesu sortzailea beharrezkoa zaigu.

(88) Honela, hori guztia egin ahal izateko, federazioak indartzea estrategikoa da. "Federazioa" diogunean ez gara egituraz ari, eremu bateko afiliatu, delegatu eta liberatu guztien baturaz baizik. Ildo honetan, lantoki bakoitzetik maila nazionalera doan haria sendotu beharra dago, afiliatuen eta federazio bakoitzeko egituraren arteko lotura estutu behar da eta federazioaren kanpo proiektzioa ere jorratu beharra dago.

(89) Aipatu bezala, federazio guztietan garatu beharreko irizpide komunak beharrezkoak dira, noski. Nazio Komiteak eta Nazio Biltzarrak finkatuko dituzte irizpide komun horiek, Biltzar Nagusiaren bidez afiliazioak erabakitako norabidean. Hiru federazioak biltzen dituen Ekintza Sindikaleko Batzordea eta horren buru den Ekintza Sindikaleko Idazkaria arduratuko dira eguneroko eztabaida sindikala ordenatzeaz, praktikan azaltzen diren behar, oztopo eta aukeren etengabeko azterketa eginda.

3.3.2. Federazioen banaketa

(90) Hiru dira LABen federazioak: Zerbitzu Pribatuak, Industria eta Zerbitzu Publikoak.

(91) Zerbitzu Pribatuen Federazioan hirugarren sektoretzat ezagutzen den hori biltzen da, batik bat. Sektore feminizatu eta, era berean, prekarizatuak dira nagusi federazio honetan eta, horregatik, prekarietatearen kontrako borrokaren aitzindaritzak dagokio. Horretarako, lan zentro nahiz lantokien dispersioari aurre egin eta kontzientzia sindikala areagotzea ditu erronka.

(92) Industria Federazioan, berriz, bigarren sektoreko jarduerak biltzen dira nagusiki. Salbuespenak salbuespen, eremu nagusiki maskulinizatuak dira. Orain arte lan baldintza egonkorragoak baldin bazeuden ere, prekarizazio prozesuak gero eta eragin handiagoa du, azpikontratazio kateen eta eskala-bikoitzen ondorioz. Eremu honetan negoziazio kolektiboak oraindik pisua badu ere, lan erreformaren ondotik ekintza sindikal berritua bideratzeko beharra nabarmena da.

(93) Zerbitzu Publikoen Federazioak, azkenik, izaera berezia dauka, federazioaren baitan bost sektore baitaude: Osasungintza, Irakaskuntza, Administrazioa, Udal-Foru eta Soziokomunitarioa. Sektore bakoitzaren garapenarekin batera, eskualdeetatik maila nazionaleraino federazio markoak antolatzean datza aurrera begirako erronka nagusia. Horrek federazio moduan sektore publikoaren aldeko borroka egitea ahalbidetu behar dio.

3.3.3. Sektorialializazioa

(94) Federazio bakoitzean zein sektore eta azpisektore kokatu behar diren iritzi ugari sortzen dituen afera da gurean. 9. Biltzar Nagusiaren ondotik, indarrean dagoen sektorializazioa berrikusi eta proposamen berritua aurkeztuko dio Nazio Komiteak Biltzar Nagusi Artekoari, honek erabaki bat har dezan.

3.3.4. Antolaketa eta funtzionamoldea

(95) Federazio bakoitzak bere plangintza propioa izan behar du, bi mailatan: alde batetik, ekintza sindikaleko plangintza, lantokietan piztu, indartu eta irabazi nahi ditugun borroken mapa, alegia; beste alde batetik, plangintza organizatiboa, federazio moduan indartu eta garatzeko epe ertainerako bide-orria. Honela, federazioaren lan-talde nazionalen, gutxienez, honako funtzio hauek aurreikusi behar dira: federazioko arduraduna, antolakuntzaz arduratuko den ondokoa eta ekintza sindikalaren jarraipena egingo duen kidea.

(96) Eskualde bakoitzean federazioko arduradun bana egongo da, eskualde txikietan izan ezik, non formula espezifikoa ebatzi beharko diren. Federazioaren arduradun hauek eskualdean dauden federazioko esparru ezberdinak (fede-

razioaren lan-taldea, delegatuen batzarra...) dinamizatuko dituzte. Bestalde, federazioko eskualdeko arduradun guztiek eta lan-talde nazionalak Nazio Komitea osatuko dute.

(97) Lan osasuna funtsezko lan ardatza da LABentzat. Egitura paralelo bat sortu baino, lan osasuna federazioetatik jorraztea da gure apustua. Horretarako, federazio bakoitzak lan osasuneko plangintza eta dinamika propioa garatu behar du eta prebentzio ordezkariei irizpideak eta baliabideak eman. Honela, Industria eta Zerbitzu Pribatuen Federazioen Nazio Komiteetan lan osasuneko arduradun bana egongo da helburu horrekin. Zerbitzu Publikoen Federazioaren kasuan, sektore bakoitzak izango du bere lan osasuneko arduraduna.

(98) Amaitzeko, hiru federazioetan zeharlerroak ekintza sindikalean txertatzeko neurriak hartu behar dira. Prozesu horri ekin zaio dagoeneko lan osasunari dagokionean eta, bakoitza bere mailan, beste bi zeharlerroen garapenari heldu behar zaio orain: plangintza feminista eta euskara. Hala, Federazioaren Nazio Komitean nola Eskualdeko Federazioaren lan-taldeetan hiru zeharlerro horiek nork eta nola jorratuko dituen zehaztu beharra dago.

3.4. Erronka berria: Ekintza Sozialeko egitura

(99) Orain arte, Batzorde Sozioekonomiko indartsu bat izan du LABek maila nazionalen. Biltzar Nagusi honetan jauzi bat egitera goaz, maila lokaletik nazionaleraino doan Ekintza Sozialeko egitura oso bat sortuz. Ekintza Sozialeko egiturak bere antolaketa, plangintza eta proiektzio propioa izango du, federazioek duten bezala. Era berean, plangintza horren elementu batzuk plangintza konfederalen txertatu eta, ondorioz, sindikatu osoan jorratuko dira. Hainbat lan-ildo LAB moduan garatuko ditugu eta beste hainbatetan elkarlanean arituko da beste eragile batzuekin, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren baitan, esaterako.

3.4.1. Funtzioak

(100) Ekintza sozio-sindikal integrala garatzeko, lantokietan lan baldintzak eraldatzeko borrokatzeaz gain, beste hiru eginkizun ditu LABek:

(101) Batetik, eskualdez eskualde eta herriz herri, langileen bizi baldintzak eraldatzeko borroka ere egin behar du. Pentsioak, osasun arreta, hezkuntza, etxebizitza, sexu askatasuna edo zaintza, langileok ditugun behar eta eskubideak dira. Kapitalaren eraso lanaren prekarizazioan ez ezik behar eta eskubide horien murrizketan eta merkantilizazioan ere oinarritzen dela jakitun, horri aurre egiteko tamainako borroka sozio-sindikala antolatu beharra dago. Borroka hau nagusiki herri eta auzoetan garatuko da Ekintza Sozialeko egituraren bidez, baina zenbait aldarrikapen, proposamen edo ekimenez lantokietan isla izan behar dute, plangintza konfederalen finkatutakoaren arabera.

(102) Bestetik, lan munduko borroka herri eta auzoetara eramane behar ditu LABek. Borroka lantokietan irabazi behar ko ditugu, baina herri langilearen babes aktibatzea garrantzitsua izango da, lantokietan irabazi ahal izateko baldintza hobeak lortzeko: borrokan ari diren industriako langileen aldeko mobilizazioak, langileen kontrako neurriak hartu dituen saltokiarekiko boikota, greban dauden zerbitzu publikoetako langileekiko erabiltzaileen elkartasun adierazpenak... Federazioek aitzindariak izan behar dute ekimen horietan; Ekintza Sozialeko egitura sendotzen doan neurrian, laguntza eman ahalko du horretan, baina hasiera batean bizi baldintzak izango ditu lehentasun.

(103) Azkenik, lan eta bizi baldintzen aldeko borroka jendarte eredu berri baten aldeko estrategia eraldatzailean kokatu beharra dago, langileria arazoei egiturazko konponbidea emateko sakoneko aldaketa beharrezkoa baita: Eskubide Sozialen Kartaren garapena ahalbidetuko lukeen estatu burujabe bat. Funtzio hori betetzea Ekintza Sozialeko egiturari dagokio, enbor konfederalarekin (Nazio Komitearekin, Eskualde Idazkaritzekin) batera.

3.4.2. Antolaketa

(104) Herriz herri eta auzoz auzo ekintza sozialeko egitura antolatzen goaz. Kasu batzuetan, dinamika soziala lantzeko interesa duten militanteen sarea eratu eta martxan jarriko dugu. Baldintzak dauden kasuetan, berriz, talde iraunkorrak sortuko ditugu, Ekintza Sozialeko Taldea izenarekin. Talde hauek lehengo herri biltzarren lekukoa hartuko dute. Dago-

kion herri edo auzoan, langileon bizi baldintza duinen aldeko borroka egingo dute, eta lan baldintzen inguruko arazoak herri edo auzora eramaten lagunduko dute, federazioekin elkarlanean.

(105) Herrietako sarea eta taldeak koordinatzeko, Ekintza Sozialeko arduradun bana jarriko da eskualde bakoitzean; hiriburuetan, behinik behin, arduradun horiek espreski liberatuta egongo dira zeregin horretarako eta, hiriburuko ekintza sozialeko egitura antolatzeaz gain, herrialde mailako ekimen sozialak koordinatuko dituzte. Era berean, Ekintza Sozialeko lurralde-egitura dinamizatzeko arduradun bat finkatuko da Euskal Herri mailan: Ekintza Sozialeko Lurralde arduraduna.

(106) Bestalde, Batzorde Sozioekonomikoaren lekukoari jarraiki, nazio mailan lan eremuetako arduradunak (eta, kasu batzuetan, eurek dinamizatzeko lan-taldeak) egongo dira, honako hauek, gutxienez: Karta Soziala, ekosozialismoa, politika publikoak (EAE, Nafarroa, Ipar Euskal Herria) eta pentsiodunak. Lan eremuetako arduradunek, Ekintza Sozialeko Lurralde arduradunarekin batera, Ekintza Sozialeko lan-talde nazionala osatuko dute, Ekintza Sozialeko arduradunak dinamizatzeko duena.

(107) Eskualdeetako arduradunak eta lan eremuetako arduradunak Ekintza Sozialeko Nazio Komitean bilduko dira.

3.5. Afiliazio politika berria: politika iraunkor eta planifikatua

3.5.1. Afiliazioa, sindikalismo eraldatzailearen oinarria: balioa eman, zabaldu, aktibatu

(108) Langileriak sindikatuak sortu zituen elkartasuna eta elkar laguntza modu eraginkorrean gauzatu ahal izateko. Eta sindikatuan afiliatzea izan zen sindikatua sortzeko modua. Afiliatorik gabe, sindikaturik ez. Autonomia ekonomikorik gabe, sindikatu autonomorik ez.

(109) Gaur egun ere afiliazioa funtsezko tresna da langileon kontra kapitalak ezarri duen prekarizazio aroari aurre egiteko. Isolatuta, langileonak egin du; kolektiboan datza gure indarra. Are eta gehiago sindikalismo eraldatzailea praktikan jarri nahi dugunontzat. Afiliazioa kontraboterea izateko ezinbesteko baldintza da. Afiliazioa aldaketa sozial eta politikoa eragin nahi duen ororen ezinbesteko eginbeharra da.

(110) Afiliazio politika berriarekin afiliatioari balioa eman nahi diogu. Eta, ondorioz, arreta, zerbitzu eta eskubide espezifikoak aitortu behar dizkiegu afiliatuei. Honako hauek, hain zuzen ere:

(111) • LABkideen komunitatearen parte izatea.

(112) • LABen antolaketa esparruetan parte hartzeko aukera: sail sindikal, sare sindikal eta abarretan.

(113) • LABen erabaketan ahotsa eta bozka izateko eskubidea, bai lantoki mailan, baita sindikatu mailan ere.

(114) • Informazio eta prestakuntza baliabide espezifikoak: informazio euskarri ezberdinak, Iraultzen, ikasgela birtuala, Eskola Feminista.

(115) • Norberaren lan egoerari aurre egiteko LABen afiliatuen defentsarako tresnez baliatu ahal izatea: ekintza sindikalak; isunek, zigorrek edota grebek eragindako kalte ekonomikoari aurre egiteko borroka kutxa; aholkularitza integrala. Aholkularitza integralaz ari garenean, arlo juridikoaz gain, bestelakoez ere ari gara: lan osasuneko aholkularitza; sexu jazarpen kasuetan arreta espezializatua; kaleratzeen edo lan egoera traumatikoen ondorio psikosozialei aurre egiteko oinarrizko informazioa.

(116) LABek afiliazioa sustatuko du iraunkorki, bere antolaketa ereduaren nahiz ekintza sindikalaren ezinbesteko osagai moduan. Era berean, unean uneko afiliazio kanpainak sustatuko ditu, bai lantokietan, baita jendartearen ere.

3.5.2. Afiliazioa sindikalizatutako eremuetan

(117) Sindikalizatutako eremuetan afiliatioari balioa emateko ahalegin berezia egin beharra dago. Izan ere, hainbat to-

kitan afiliatua egotearen garrantzia erlatibizatu izan da, hau da, afiliatua egon ala ez egon, arreta eta eskubide berberak aitortu zaizkie LABen zaleei. Berdin-berdin hartu izan dute parte sail sindikalean afiliatuek eta zaleek; informazio eta arreta bera jaso izan dute. Eta, ondorioz, zale askok ez dute beharrik ikusi afiliatzeko.

(118) Afiliazioak balioa galtzen du honela. Zaleak ere zaindu behar dira, bai, baina afiliatuekin parekatu gabe. Afiliatuei arreta eta eskubide espezifikoak aitortuta, afiliazioa balioztatzen da. Eta zaleei afiliatzeko gonbitea luzatzen ere bai, aurretik esan bezala, afiliaziorik gabe ez baitago sindikalismo eraldatzailea egiterik, afiliaziorik gabe LABek ez du nahikoa indar izango kontraboterea izateko.

3.5.3. Afiliazioa sindikalizatu gabeko eremuetan

(119) Badira tradizio sindikalik gabeko eremuak, prekarizatutako zerbitzu pribatuetan eta soziokomunitarioan, bereziki. Hor lehen erroka sindikalismoaren beharra ikustaraztea da. Kasu batzuetan LABek horrelako lantoki batera jotzen du hauteskunde sindikalak egiteko proposamenarekin. Beste kasu batzuetan, lantokietatik datorkigu egoera jakin baten inguruko galdera edo eskaera. Kasu horietan, sindikalismoaren beharra ikustarazi behar dugu ezer baino lehen eta behar hori asetzeko afiliatua egotearen garrantzia jorratu.

3.5.4. Afiliazio kuota: egoera ezberdinei erantzuteko

(120) Orain arte afiliatzeko beharraz aritu gara, baina afiliatzeko aukeraz ere mintzatu beharra dago. Izan ere, badira lan egoeraren karia zailtasun ekonomikoak dituzten langileak. Horri aurre egiteko, hainbat kuota mota eskaintzen ditu sindikatuak, langileen egoera laboralari egokitutakoak. Prekarizazio prozesuak sortzen duen egoeraren arabera, kuota sistema garatuz joango da LAB, beti ere bideragarritasun ekonomiko bermatuta, diru-sarreraren %90 baino gehiago kuota bidez baitator.

3.6. Tokian toki LABkideak saretu: afiliatuen komunitatea eta antolaketarako esparruak

3.6.1. Afiliatuen komunitatea: klase elkartasunaren ernamuina, eredu berri baten akuilua

(121) LABen afiliatzen den langilea elkartasun eta elkar babesarako sare baten parte bihurtzen da. Bere ekarpen ekonomiko eta, kasu askotan, militantea gainontzeko kideen defentsarako ekarpena da. Eta, era berean, gainontzeko kideen ekarpena, bere defentsarako tresna.

(122) Sindikatuen sorrera garaian, elkartasun sareen izaera oso agerian zegoen. Denborarekin, sindikatuak handitu eta egonkortu ahala, izaera hori lausotu egin da. Elkartasun sarearen, komunitatearen, kontzientzia ahuldu egin da.

(123) Datorkigun borroka garaian aurre egiteko, komunitate izaera berreskuratzea garrantzitsua da. Elkartasunak izan behar du gure oinarritzeko balioa. Eta balio hori praktikan gauzatu beharra dago, baldintza okerrenetan daudenei arreta berezia eskainita. Lan egonkorra dutenek ebentualekiko kezka izan behar dute. Lantoki nagusikoek azpikontratetan edo ABLEetan daudenekiko.

(124) Era berean, enpresa bateko LABkideak lan gatazka batean baldin badaude, euren borrokan arrakasta izan dezaten laguntzeko kezka izan behar dute eskualdeko afiliatuek. Are eta gehiago, lan esparrutik harago ere, LABkideei laguntza emateak ohikoa izan beharko luke. Esaterako, gure lantokiko edo herriko afiliatu bat etxegabetze prozesu batean balego, gainontzeko LABkideok babesa eman beharko genioke.

(125) Bestalde, elkarren babesarako ez ezik, LABkideen komunitatea eredu berri baterako akuilua ere izan daiteke. Esaterako, LABeko afiliatuok energia multinazionalen bezeroak izateari utzi eta energia kooperatiben kide bihurtuko bagina, bultzada ikusgarria emango genioke Euskal Herrian eredu berri bat eraikitze prozesuari. Edota Euskal Herriko nekazal ekoizpena kontsumituko bagenu, lehen sektorea suspertzen lagunduko genuke, elikadura burujabetzaren bidean.

(126) Planteamendu hori ez dugu ikuspegi korporatibotik egiten, baizik eta ikuspegi eraldatzailetik. Gure xedea klase subjektua berrosatzea da, langile komunitatea indartzea. Eta horretara iristeko, etxetik hasi beharko dugu. LABkideen artean

klase subjektua berrosatuz, dauden zailtasun eta kontraesanei aurre eginez, eta esperientziak eta irakaspenak metatuz, euskal langileriaren berrosatzeari egingo diogu ekarpena. Langileen aurrean eredugarriak izanez, sinesgarritasuna irabaziko dugu.

(127) Horregatik diogu LABkideen komunitateak izan behar duela klase elkartasunaren ernamuina eta eredu berri baterako akuilua.

3.6.2. LABkideen antolaketarako esparruak

(128) Ekintza sindikala praktikan jarri nahiz eraldaketa prozesua sustatzeko, ahalik eta afiliatu gehien ahalik eta modu eraginkorrenean antolatzea da gakoa. Antolaketa esparruak tokian tokiko baldintzen arabera moldatu beharra dago, eskema zurrunetatik aldendurik. Honako hauek dira LABek aurreikusten dituen afiliatuentzako oinarritzko antolaketa esparruak:

Sail sindikala

(129) Lantoki batean LABkideak modu iraunkorrean antolatzeko esparrua da. Sail sindikalaren funtzionamendu arau batzuk ezarri behar dira afiliatuen artean, honako hauek, besteak beste: afiliatuen batzarra biltzeko maiztasuna; lan-talderik balego, hauen funtzioak eta maiztasuna; arduen banaketa; barne komunikaziorako tresnak; langileei begirako komunikazio tresnak; erabakiak hartzeko prozedurak (batzarrean bertan edo kontsulten bidez), beti ere irizpide konfederalen baitan. Edozein kasutan ere, zentzuzkoa dirudi kasu guztietan sail sindikalaren koordinatzailea eta lan-talde dinamizatzailea egotea. Jakina denez, Hego Euskal Herriko lantoki handietan sail sindikaleko ordezkaria izendatzeko aukera dago. Halere, guk maila juridikoa eta maila organizatiboa ezberdintzen ditugu. Hau da, ahal den toki guztietan sail sindikala erregistratuko dugu, juridikoki aukera batzuk ematen dituelako, eta sail sindikaleko ordezkaria izendatuko dugu. Baina LABeko sail sindikala praktikan nola antolatzen den eta horren koordinatzailea eta lan-talde dinamizatzailea nor den LABeko afiliatuon artean erabakiko dugu.

Sare sindikala

(130) Zenbait enpresa ertain eta handitan, euren ezaugarriengatik, sail sindikala antolatzea ezinezkoa izaten da, zerbitzu pribatuetan, bereziki. Langileek eta, ondorioz, gure afiliatuek lantoki ezberdinetan lan egiten dute, askotan ordutegi ezberdinetan. Kasu horietan, eta posible den tokietan sail sindikala juridikoki legeztatuta ere, gure antolakuntza eskaintza praktikoa sare sindikala izango da. Sail sindikalen kasuan bezala, afiliatu guztiek dute sarean parte hartzeko eskubidea eta sarearen funtzionamendua denon artean adostu beharra dago. Era berean, sarearen koordinatzailea eta lan-talde dinamizatzailea (normalean, delegatuak) egotea ere zentzuzkoa da. Baina sail sindikalaren kasuan afiliatuen batzarra maiztasun zehatzaz biltzea funtsezkoa den bitartean, sare sindikalaren kasuan bestelako baliabide organizatibo batzuk erabili beharra dago: lan-talde dinamizatzaileak lantokiz lantoki egindako bisitak edota sare sozialak, esaterako. Hori bai, komenigarria izango litzateke urtean pare bat aldiz afiliatu guztiei begirako deialdiak egitea, denen arteko zuzeneko harremana ere bermatzeko.

Enpresarteko elkargune sindikalak

(131) Jakina denez, enpresa nagusiaren jarduerak azpikontratatzea da kapitalak lan kosteak murrizteko nahiz langile kolektiboa zatitzeko erabiltzen duen bitarteko nagusietako bat. Hortaz, langile subjektua berrosatzeko nahitaezkoa da jarduera ezberdinetan dabilzan langileen arteko harremana indartzea. Norabide horretan, LABek enpresa ezberdinetako delegatu edota afiliatuak biltzeko elkargune sindikalak sustatuko ditu. Adibidez, udaletxe bateko LABkideak eta udaletxe horrentzat lan egiten duten azpikontratetakoak elkartuko ditugu; edota, industria arloan, enpresa matriz baten antolatzea lan egiten duten azpikontrata eta hornitzaileak; baita merkatal gune jakin batean dauden saltokietako LABkideak edota portuaren inguruan dauden jarduera ezberdinetan dabilzanak ere. Elkar ezagutza eta harremanetik abiatuta, bakoitzak bizi duen egoerarekiko elkartasuna gauzatzea nahiz estrategia komunak garatzea da helburua. Federazioen arteko elkarlana funtsezkoa da elkarguneak antolatzeko. Ildo horretan, enpresa nagusiko LABkideek eta dagokien federazioak dute elkargune hauek antolatzeko ardura berezia. Elkargune bakoitzak, sail eta sare sindikalek bezala, bere funtzionamendu arau adostuak izan beharko ditu: maiztasuna, antolaketa, komunikazio bideak e.a.

Lantoki txikietako afiliatuentzako mintegiak

(132) Badira lantoki txikietan dauden milaka afiliatu, inongo sare, sail edota elkargunean parte hartzeko aukerarik ez dutenak. Horiek dituzten beharrei begira ere antolakuntza eskaintza bat egingo du LABek: afiliatuentzako mintegiak. Horretarako beharra eta aukera duten eskualdeetan antolatuko ditugu mintegi hauek, urtean behin edo gehiagotan. Mintegian, alde batetik, gutxieneko prestakuntza sindikala eskainiko dugu: nominak, kontratuak, lan osasuna, hitzarmenaren interpretazioa... Beste alde batetik, sindikatuko bizitzaren berri emango dugu. Eta azkenik, afiliatuen kezka eta eskarien berri jasoko dugu. Eskaintza honen bidez afiliazioari balioa emango diogu, baita ekintza sindikal iraunkor bat garatzeko zailtasunak dauden lantoki txikiei begira ere.

Herri/auzoko ekintza sozialeko sarea eta taldea

(133) Aurretik aipatu dugun bezala, Ekintza Sozialeko egitura oso bat antolatzera goaz, herrietatik nazio mailaraino. Herri eta auzoetan ere antolatzeko eskaintza egitera goaz, beraz. Lantokien kasuan bezala, eskaintza horrek malgua behar du izan. Honela, hainbat eskualdetan, ekintzailez osatutako sarea antolatuko dugu, Ekintza Sozialeko eskualdeko arduradunak sare sozialen bidez dinamizatu eta noizean behin bilduko dena. Beste zenbait eskualde edo herritan, aldiz, talde iraunkorrak sortzeko apustua egingo dugu. Batean nahiz bestean parte hartzeko eskaintza egingo diegu afiliatu guztiei eta, bereziki, lantokietan antolatu ezin ditugun horiei: pentsiodunak, langabeak, noizbehinkako lan txikiak besterik eskuratzen ez dituzten prekarioak, ezkutuko ekonomian ari direnak eta abar.

3.7. Sindikatuaren barne bizitza aktibatu/indartu

3.7.1. Militantziaren (delegatu/afiliatuen) parte hartzea indartu sindikatuaren

(134) LAB izugarri handitu da bere ibilbidean zehar. Delegatuak biderkatu dira. Liberatuak ugaritu. Eta egitura handiekin gertatu ohi den bezala, sindikatuaren barne bizitza afiliatuengandik urrundu egin da. Afiliatu askok beren lantokiko LABekin dute gehienbat harremana, baina ez dute parte hartzen sindikatuaren gogoeta, eztabaida, batzar edo deialdi orokorretan. Honela, LABekiko atxikimendua handia bada ere, ezin daiteke gauza bera esan parte hartze mailaz.

(135) Parte hartzea berez ez da helburu soila. Bitartekoa ere bada. Izan ere, parte hartze maila handi batek sindikatuaren barne bizitza indartzen du, kultura sindikala elikatzen du, koadro sindikalak sortzen ditu. Eta, ondorioz, ekintza sindikal eraginkorra praktikan jartzeko baldintzak hobetzen ditu.

(136) Parte hartzeko lehen baldintza barne komunikazioa indartzean datza. Izan ere, sindikatu nola antolatzen den eta zertan dabilen ezagutu ezean, nekez hartuko du parte ezein afiliatuk sindikatuak deitutako batzar edo mobilizazio batean. Bi norabidetan barne komunikaziorako bitarteko eraginkorrak sortzea da, beraz, gure lehen erronka.

(137) Horrekin batera, afiliatuei begirako prestakuntza eskaintza artikulatu beharra dago. Helburu honekin, ikasgela birtuala martxan jartzera doa LAB. Honen bidez, afiliatuak informazio eta ezagutzez hornitu nahi ditugu eta kultura sindikala garatzen lagundu.

(138) Hirugarrenik, parte hartze eta eztabaida guneak indartzera goaz: lantokiko afiliatuen batzarrak, eskualdeko delegatuen batzarrak, federazioko delegatuen batzarrak... LABkideek jakin behar dute zer eztabaidatu edota erabakitzera goazen, nola eta zein gunetan. Eta gune horiek dinamizatzen dituztenek parte hartze teknikan prestakuntza jaso behar dute.

(139) Azkenik, erabaki jakin batzuk hartzeko kontsultak egitea sustatuko du sindikatuak. Horretarako, kontsulten arautegia egingo dugu.

3.7.2. Gogoeta eta erabaki marko orokorrak indartu

Biltzar Nagusia

(140) Biltzar Nagusia da LABen erabaki estrategikoak hartzeko eta zuzendaritza hautatzeko esparrua. Biltzar Nagusiak bi atal ditu: batetik, hainbat hilabetez luzatzen den eztabaida prozesu deszentralizatua, non afiliatu guztiek parte hartzeko

aukera duten; bestetik, prozesu horri amaiera ematen dion osoko bilkura, afiliatuek eskualdez eskualde hautatutako 500 kidek osatuta. Parte hartzea indartzeari begira hiru neurri proposatuko dira:

(141) Lehenik eta behin, prozesuari dagokionez, eztabaida bizia egiteari garrantzia eta lehentasun osoa emango diogu, iraganeko Biltzar Nagusien gehiegizko formalismotik harago.

(142) Bigarrenik, zuzendaritza hautatzeko orduan, azken Biltzar Nagusietan erabilitako zerrenda itxien eskemaren orde³, zuzendaritza proposamena osatzeko zerrenda irekiak erabiltzea planteatzen da. Edozein afiliatuk proposatu ditzake hautagaiak eta, ardurua baterako hautagai bat baino gehiago aurkeztuko balitz, eskualdeko idazkarien kasuan eskualdeko hautatutako lirateke eta ardurua konfederalen kasuan Biltzar Nagusiko osoko bilkuraren hasieran. Horrela osatutako zuzendaritza proposamena blokean bozkatuko litzateke Biltzar Nagusiko osoko bilkuraren amaieran.

(143) Hirugarrenik, Biltzar Nagusien arteko erdibidean "Biltzar Nagusi-artekoa" deitzea proposatzen da. Biltzar Nagusian hautatutako zuzendaritzak kudeaketa-txostena aurkeztu beharko dio afiliazio osoari, Biltzar Nagusiko erabakiak praktikan jartzeko zer nolako kudeaketak egin diren bertan zehaztuz. Era berean, zehaztutako ildoan zuzenketa partziala egitea proposatu lezake, bidean azaldutako barne nahiz kanpo aldagaiek horrela gomendatuko balute. Azkenik, zuzendaritzan moldaketak egitea ere proposatu lezake. Biltzar Nagusietan bezala, afiliatu orok izango luke egindako proposamenei dagokionez alternatibak aurkezteko eskubidea. Azken erabakia, Biltzar Nagusian bildu ziren 500 ordezkari berberak hartuko dute osoko bilkuran.

Federazioetako Biltzarrak

(144) Biltzar Nagusiko erabakiak federazio bakoitzera egokitzeko nahiz federazioko lan-talde nazionala hautatzeko, Federazioetako Biltzarrak egitea proposatzen da. Biltzar Nagusiaren testuinguruan burutuko lirateke, bakoitza bere osaketa, metodologia eta egutegi propioaren arabera. Beharra ikusiko balitz, bost urtean behingo ohiko Biltzarraz gain, ohiz kanpoko Biltzarra deitu lezake Federazio batek, Nazio Biltzarraren onespenerekin.

Ekintza Sozialeko egitura

(145) Ekintza Sozialeko egitura garatu ahala, maila nazionalen beharrezkoak diren gogoeta markoak definituko dira.

Eskualdeko Kontseiluak

(146) Eskualdeko Kontseiluen inguruko gogoeta sakona egin beharra dago. Nazio eta eskualde mailako gogoeta estrategikoak Eskualdeko Idazkaritzatik baino harago konpartitzeko gunetzat definitu genuen bere garaian. Alabaina, eskualde askotan ez da biltzen eta biltzen den horietan osaketa eta izaera ezberdinekin egiten da. Eskualdeko Kontseiluen inguruko gogoeta espezifikoak egingo da Biltzar Nagusi-artekoari begira.

3.8. Sindikatua, langile sektore ezberdinen bitartekoa

(147) Norbere lana bizibide duena, beste inoren lanetik bizi gabe, da langilea. Norberaren lana bizibide duten lagun guztiek osatzen dute langile klasea. Definizio horren barruan askotariko egoera laboralak daude, soldatapekotik autonomo faltsuraino, etxeko langiletik bekaduneraino. LABen asmoa ez da horiek guztiak sindikatuaren baitan antolatzea, baina bai eraldaketaren bidean horien guztien aliatu izatea eta, ondorioz, horiek guztiak kontuan hartuko dituzten proposamen eta praktika sindikala egitea.

3.8.1. Sindikatuan kolektibo ezberdinei lekua egin

(148) Historikoki soldatapekoak antolatzea izan da sindikatuaren misioa. Eta horien antolaketa funtsezkoa izaten jarraitzen du, zalantzarik gabe, langileriaren zati handi bat den aldetik. Horrekin batera, bestelako egoera laboralak dituzten langileei ere sindikatuan lekua egitea da erronka, klase subjektuaren berrosaketari etxetik bertatik ekinez.

³ Zerrenda itxiak: Nazio Komiterako 40 laguntako zerrenda proposatzen da eta ados ez dagoenak beste 40 izen proposatu behar ditu.

Pentsiodunak

(149) Zortzi urte eman ditugu pentsiodunak antolatzen, Pentsiodunen Arloan. Sindikatuak ez ditu nahi bezainbeste bitarteko izan arloa sustatzeko eta horri konponbidea jarri nahi diogu, aurrerantzean arloa Ekintza Sozialeko egituraren koka-tuta. Orain arte arloak pentsioen gaiari arreta handia eskaini badio ere, hemendik aurrera pentsiodunen bizi baldintzak hobetzeko lanean murgilduko da. Izan ere, pentsioak ez dira pentsiodunen arazoa, langile guztiona baizik. Horrekin batera, LABek pentsiodunen plataformekin elkarlanean jarraituko du.

Langabeak

(150) Langabezia egiturazko bilakatzen ari da. Milaka eta milaka langilek denbora luzeena langabezia ematen dute, noizbehinka lan prekarioak tartekatzen, maiz beltzean lan egiten. Ezin dugu inolaz ere onartu kapitalak eta bere mese-derako sistemak langile diren, gutarrak diren milaka eta milaka lagun langabeziara eta bazterketa sozialera kondena-tzerik. Horiei guztiei borrokarako ildo eta antolaketa-erako esparru bat eskaintzea gure lehentasunetako bat da. Aparteko arlo bat sortu ordez (bere garaiko LAB Langabetuak izan zen bezala), Ekintza Sozialeko egituraren antolatzea da gure eskaintza. Izan ere, Ekintza Sozialaren ildo nagusietako bat langabezia eta bazterketa sozialaren kontra era kolektiboan borrokatu eta eredu alternatibo baten alde lan egitea izango da. Langabeziaren arazoa ez da langabetuena, sindikatu osoarena baizik. Horrekin batera, Ekintza Sozialetik langabetuen asanbladetik elkarlana estutuko dugu.

Bekadunak eta praktikan diren "ikasleak"

(151) Langileen esplotazioarako aitzakia bihurtu dira beka eta praktikak, industriaren eta teknologia berriei loturiko es-parruetan bereziki. Bekadun eta praktikan diren ikasleek edozein soldatapekoaren lan berdina egiten dute askotan, lan baldintza askoz okerragoetan. Iruzur honi aurre egitea da sindikatuaren lehentasuna izango da eta, horretarako, federazioetatik esplotazio egoerak detektatu eta salatzeke lana egin beharra dago. Honekin batera, lantokian bertan antolatzeke zailtasun handiak daudela jakinda, federazio bakoitzak kolektibo honen lan baldintzak hobetzeko lantokiz gairako dinamika sustatu beharko ditu.

Enplegu zentro berezietako langileak

(152) Enplegu zentro berezietako langileak juridikoki soldatapekoak badira ere, lan baldintza espezifikokoak dituen sekto-rea da hau. Berez, desgaitasunak dituzten pertsonak lantoki arruntetan integratzeko trantsizio moduan diseinatu ziren zentro horiek, baina, praktikan, kasu gehienetan ez da trantsiziorik egiten. Honela, lan-esku merkea lortzeko zentroak bilakatu dira; kasu batzuetan, gainera, lantoki arruntetan aritzen dira, "enklabe" direlakoetan, bertakoen lan antzekoa merkeago egiten. Errealitate espezifikoki erantzuna emateko, azpisektore gisa antolatuko ditugu⁴. Aurrerago egingo den sektorializazioaren eztabaidan zehaztuko dugu zein federaziotan kokatuko diren.

Etxe langile soldatapekoak

(153) Milaka eta milaka langile, gehienak emakumeak, asko migranteak, beste norbaiten etxe garbiketa edota zaintza lanez arduratzen dira. Batzuek ordu gutxi baten dute bitartean, badira lantokitzat dute etxe horretan bertan bizi di-renak ere. Batzuek nahiz besteek soldata baxuak eta lan baldintza kaxkarrak izan ohi dituzte eta, erregimen berezi baten eraginpean daudenez, ez dute behar besteko arretarik jasotzen sindikalismotik. Kolektibo honen beharrei erantzutea da LABek Biltzar Nagusi honetan hartzen duen erabaki nagusietako bat. Zaintza lanez arduratzen diren aldetik, sektore Soziokomunitarioan antolatzeke eskaintza egingo diegu.

Autonomo faltsuak

(154) Erregimen berezi baten eraginpean badaude ere, langile hauek praktikan enpresa bateko soldatapekoak dira. Gehienetan autonomo bilakatzea ez da euren hautua izan, baizik eta enpresak ezarritako baldintza. Esan dezakegu enpresak azpikontratatuak langileak direla. Ordezkaritza sindikala hautatzeko aukerarik ez badute ere, afiliatu eta euren eskubideen alde antolatzeke eskaintza egiten die LABek. Jardueraren arabera dagokien federazioarekin izango dute harremana.

⁴ Gaur egun, enplegu zentro berezi bakoitza bere jardueraren arabera dagokion federazioan antolatzen da, ez daude elkarrekin sektore moduan, alegia.

3.8.2. Elkarlan akordioak/aliantzak

Ikasleak eta gazteak

(155) Langile familietako ikasleak biharko langileak dira. Etorkizunean sindikatuan antolatzea da gure eskaintza eta, bien bitartean, elkarlanean aritzea proposatzen diegu. Irakaskuntza sektoretik edota Karta Sozialaren baitan egiten dugun elkarlan iraunkorraz gain, ikastetxeetan formazio sindikala emateko eskaintza egingo diegu. Gazteei dagokionez, oro har, Ernai gazte erakundearekin egiten ari garen elkarlanari segida emango diogu, gazteen artean kontzientzia sindikala jorratzeko. Ildo honen ardura egitura konfederalak hartuko du (Idazkaritza Nagusiak eta Eskualdeetako Idazkaritzek).

Kooperatibistak

(156) Teorian langile kooperatibistak ekoizpen bideen jabeak badira ere, kooperatiba handietan zuzendaritzaren eta gainontzeko langileen arteko dikotomia sortu ohi da; batzuen eta besteen interesak ez dira berberak eta langileek tresna kolektiboak behar dituzte euren ikuspegia eta eskaerak defendatzeko. Era berean, kooperatibak lehia kapitalistan aritzen direnez, jendartea eraldatzeko bokazioa lausotu ohi da. Langile kooperatibisten ikuspegia defendatzeko nahiz jendartea eraldaketaren norabidea indartzeko xedez, LABek aliantzarako eskaintza egiten die langile kooperatibistei. Bestalde, ekonomia sozial eraldatzaileari dagokionez, bertako kooperatibistak bestelako jendartere ere erakitzeke bidelaguntzat jotzen ditu LABek.

Autonomoak

(157) Autonomo askok beste norbaiti zuzenean euren zerbitzuak eskaintzen dizkieten langileak dira. Beste hainbatek, langile bat edo batzuk kontratatzen dituzte beren jarduera ekonomikoa aurrera ateratzeko; kasu hauetan, langile autonomoaren eta enpresariaren arteko muga lausotzen da. LABek ez du autonomoak sindikatuan bertan antolatzeko eskaintza espezifikorik egingo, baina, behar izanez gero, autonomo subiranistak antolatu daitezela lagunduko du. Badira esperientziak norabide horretan, esaterako, HIRU garraiolarien sindikatua.

Norbere etxerako lan egiten duten etxeko langileak

(158) Norbere unitate familiarrean lanaldi osoz zaintza lanak egiten dituzten milaka lagun daude, gehienak emakumeak. Etxekoandre izendatuak izan dira, lan hori emakumezkoek egotziz. Sistemak populazio pasibotzat jotzen baditu ere, sozialki eta ekonomikoki ezinbestekoa den lana egiten dute langileok. Euren lana ez da barne produktu gordinean zenbatzen, ez dute soldatarik jasotzen eta ez dute pentsio kontributiborako eskubiderik. Langile hauen lana balioztatzearekin batera, soldata eta pentsiorako duten eskubidea aldarrikatuko du LABek.

Ezkutuko ekonomian aritzen diren langileak

(159) Milaka langilek ezkutuko ekonomian egiten dute lan, kasu gehienetan derrigortuta. Hor ditugu paperik gabeko migranteak, uzta garaiko zenbait jornalero, ostalaritzako noizbehinkako langileak edota sexu langileak. Ez dute gizarte segurantzarako eta, ondorioz, baja edo pentsiorako eskubiderik. Ez dute euren eskubideak defendatzeko baliabiderik eta, hortaz, esplotazio egoerak pairatzen dituzte maiz. Hauen egoera aintzat hartu eta duintzea aldarrikatuko du LABek. Era berean, esplotazio egoeren aurrean ekintza sindikala aktibatuko du.

3.9. Zeharlerroak garatu

(160) LAB aitzindaria izan da bere jarduera sindikalean bi ardatz ezartzeko orduan: batetik, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna; bestetik, lan munduaren euskalduntzea. Ardatz horiek garatzeko, plan estrategiko bana dauka LABek: gizon eta emakumeen arteko Aukera Berdintasun Plana, feminismoan aurrera urrats berriak egitea ahalbideratuko duen Plan Feminista bilakatuko duguna, eta barne euskalduntzerako nahiz lan munduaren euskalduntzerako plana (EusLAB). Plan estrategiko horiek indartzeko apustua egiten dugu.

(161) Plan Feministari dagokionez, balio feministetan oinarritutako praktika sindikala indartu beharra dago, barnera nahiz kanpora begira. Horretarako, neurri organizatibo berriak hartzea goaz. Alde batetik, erabaki gune nagusietan Idazkaritza Feministaren presentzia bermatuko dugu; honela, Nazio Komite konfederallean ez ezik, hiru Federazioetako nahiz Ekintza Sozialeko Nazio Komiteetan ere, arduradun feminista bana izendatzera goaz. Beste alde batetik,

emakume sindikalisten sarea indartuko dugu, hiriburu bakoitzean egongo den Idazkaritza Feministako arduradunaren bidez.

(162) EusLAB ildo estrategikoari dagokionez, barne euskalduntzea (SinEus) sustatzeko egoitza nagusietan eta euskararen erabilera sustatzeko bultzada berezia behar den tokietan hobemahiak garatuko ditugu; barne euskalduntzerako arduraduna izango da lan honen dinamizatzailea. Kanpora begira, hiru federazioek beren errelitateari erantzungo dion euskalduntze plangintza diseinatu eta martxan jarri beharko dute, horretarako plangintza horren jarraipena egingo duen norbait izendatuta. Eskualdeei dagokienez, gutxienez hiriburuetan eta ahal dela eskualde guztietan euskara arduradunak jarriko ditugu.

(163) Aipatutako bi ardatz estrategikoen gain, badira sindikatu osoak jorratu beharreko beste ildo batzuk: aniztasun sexuala, aniztasun funtzionala eta migranteak. Hiru eremuei begirako gogoeta eta irizpideak egiten hasiak gara eta orain irizpide horiek geure ekintza sindikalean txertatu behar ditugu. Horretarako, neurri organizatiboak hartuko ditugu: materialaren sorkuntza, prestakuntza, sindikatuari begirako neurriak, ekintza sindikala eskatzen duten kasuen identifikazioa, aholkularitza...

(164) Zeharlerroen eremu hau guztia antolatzea Exekutiboan kokatuta dagoen Zeharlerroetako arduradunari dagokio, Antolakuntza arduradunarekin elkarlanean.

3.10. Langileekiko komunikazioa indartu

3.10.1. Paradigma berria: guztiok gara komunikazioa

(165) Sindikatuko kideok egiten dugun guztiak kanpora begirako proiektzioa dauka: afiliatu bati egindako kontsulta, enpresa batera egindako bisita edota LABek argitaratutako eskuorria. LABeko kideon jarduera orok eragiten du inpresio jakin bat gainontzeko langileengan. Horren kontzientzia behin hartuta, zer eta nola proiektatu nahi dugun erabaki behar dugu. Jakina, ezin liteke proiektatu norberak egiten ez duena; baina askotan kontrakoa gertatzen zaigu, asko egin bai, baina gutxi proiektatzen dugu.

(166) Komunikazioa ez da espezialisten afera, LABeko militante guztiena baizik. Komunikazio arduradunek irizpideak proposatu eta komunikazio bide nagusiak kudeatu beharko dituzte. Baina erakunde osoak aplikatu eta egokitu beharko ditu irizpide horiek eta erakunde osoak izan beharko du komunikazio eragilea.

(167) Egungo egoeratik paradigma berrira igarotzeko trantsizio ordenatu eta egituratua martxan jarri beharra dago, honako eginkizun hauei helduta: irizpide komunikatiboak berritu eta garatu; komunikazioaren inguruko oinarritzko prestakuntza bermatu militante guztiei; prestakuntza jarraia garatu; beharrezkoak diren baliabideak sortu.

3.10.2. Komunikazio ardura sindikatuko esparru nagusietan txertatu

(168) Komunikazioa sindikatu osoaren eginkizun bihurtze bidean, komunikazioaz espezifikoki arduratuko den kide bana izendatu beharra dago sindikatuko esparru nagusietan. Gaur egun Exekutiboan eta hiriburuetako eskualde idazkaritzetan baino ez dago ardura hori. Hemendik aurrera, Federazioetako nahiz Ekintza Sozialeko Nazio Komiteetan, Eskualde Idazkaritzetan eta sail sindikal nagusietan ere finkatuko ditugu. Pertsona hauen funtzioa, espezializazio maila zehatza eskatzen duten komunikazio bideak kudeatzeaz gain, paradigma berrirako trantsizioa dinamizatzea izango da.

3.10.3. Langileekin zuzeneko komunikazio bideak indartu

(169) Komunikabideei begira kalitateko lana egitearekin batera, LABek zuzeneko komunikazio bideak lehenetsiko ditu. Langileekin zuzenean aritzeak, komunikabideen bitartekaritzarik gabe, izugarritzko balioa dauka.

(170) Horretarako, sare sozialak eta baliabide komunikatibo berriak erabiliko ditugu, baina jakinda ahoz ahoko komunikazioa dela sindikalismo eraldatzailearen tresna eraginkorrena. Federazioetako arduradunen eginbeharrak garrantzitsuenetako bat da poligonoetatik, saltokietatik edo ikastetxeetatik birak egitea. Era berean, delegatuek etengabeko

harremana izan behar dute afiliatuekin eta, oro har, langileekin, lan zentro edo lanpostu ezberdinetara bisitak eginez.

(171) Horrekin batera, langileei begirako informazio eta formazio sindikalerako baliabideak sortzera goaz. Alde batetik, infogune telematikoen bidez, isolatuta dauden langileei begirako leiho bat ireki nahi dugu. Beste alde batetik, herri eta auzoetan infoguneak antolatuko ditugu, izan kanpaina baten baitan, izan modu iraunkorrean. Azkenik, ikasleei eta gazteei begirako jarduera indartuko dugu.

3.11. Erabakiak garatu ahal izateko egokitzapenak

3.11.1. Eskualdeko Idazkaritza: inplementaziorako egitura konfederala.

(172) Aurrerantzean LABek lau adar izango ditu, nazio mailatik eskualdeetara egituratuta: Federazioak eta Ekintza Sozialeko egitura. Nazio mailan, Komite Exekutiboan eta Nazio Komitean bat egiten dute lau adar horiek; eskualde mailan, berriz, Eskualdeko Idazkaritzan. Horregatik, estatutuetan Eskualdeko Idazkaritza lurralde egituratzat jotzen bada ere, berez, izaera konfederala dauka.

(173) Enbor konfederala, beraz, honela dago egituratuta: Biltzar Nagusia; Nazio Biltzarra eta Eskualdeko Kontseiluak; Nazio Komitea-Exekutiboa, eta Eskualdeetako Idazkaritzak. Azken hauek dira lantokiekin eta herriekin lotura zuzena dutenak eta, ondorioz, LABen ildo konfederalaren inplementaziorako gakoak. Hauek indartzea izango da datozen urteetako erronka nagusietako bat.

(174) Eskualdeko Idazkaritzen funtzioak honako hauek dira:

(175) • Federazioen eta Ekintza Sozialeko egituraren plangintzen uztarketa eskualdeko plangintzen baitan.

(176) • Plangintza konfederal nazionalaren inplementazioa eskualdean, ildo politikoari zein antolakuntzari dagokienez.

(177) • Aurreko bi mailak integraturik, tokiko errealitate espezifikoki erantzuten dion eskualdeko estrategiaren garapena.

3.11.2. Antolakuntza plana. Antolakuntza Plenarioa eta Eraketako Lan Taldea.

(178) Ponentzia honetan aurreikusitako eredu organizatiboa garatzeko, 2017-2021 antolakuntza plana diseinatuko da. Planaren jarraipenaz Antolakuntza Plenarioa arduratuko da. Bertan honako hauek hartuko dute parte: batetik, lan-eremu zehaztutako arduradun konfederalak (Hedapena, Aholkularitza, Barne Prestakuntza, Zeharlerroak eta Barne Komunikazioa eta Parte Hartzea); bestetik, antolakuntzaz arduratzen diren hiru federazioetako kide banak nahiz Ekintza Sozialeko Lurralde arduradunak; eta, azkenik, eskualdez eskualde dinamizazio lana egiteaz arduratuko diren Eraketako arduradun konfederalak.

(179) Federazioetako antolakuntza arduradunek eta Eraketako arduradun konfederalak bigarren marko bat osatuko dute, maiztasun handiagoz bilduko dena: Eraketa Lan Taldea. Bere eginkizunak, besteak beste, honako hauek dira: plangintza konfederala eta federazioetako plangintzak uztartzea eta garatzen laguntzea; Eskualdeko plangintza konfederala nahiz federazioetako plangintzen jarraipena egitea, eta antolakuntza plana eskualdez eskualde inplementatzea. Antolakuntza arduradunak dinamizatuko du eremu hau guztia.

3.11.3. Prestakuntza arloa berregituratu

(180) 9. Biltzar Nagusian egiten dugun apustu politiko-sindikala nahiz antolakuntzako praktikan jartzeko, ezinbestekoa da prestakuntzaren arloan jauzi bat egitea, bi dimentsiotan egitea.

(181) Lehen dimentsioa kanpora begirakoa da. Lan munduan nahiz jendartearen gertatzen ari diren aldaketa sakonen inguruko azterketa eta prospekzio lana funtsekoa da. Era berean, logika neoliberalari hegemonia lehiatuko dion langile logika eraiki eta zabaldu beharra dago. Azkenik, langileen boteretzea ahalbidetuko duen prestakuntza sindikala indartu behar da, infogune telematikoa bezalako baliabideen bidez.

(182) Bigarren dimentsioa barrura begirakoa da. Abiatzera goazen borroka fasean eraginkortasunez aritzeko, liberatu, ordezkari eta afiliatu prestatuak behar ditugu. Epe ertainerako prestakuntza plan sendoa egingo dugu horretarako.

(183) Bi dimentsio hauei behar bezala erantzuteko, prestakuntza arloa berregituratuko da. Zeharlerroetan kokatuta ego-tetik Idazkaritza Nagusiarekin lotuta egotera pasako da. Era berean, antolakuntzako lan-taldean parte hartuko duen barne prestakuntzako ardura berria sortzera goaz.

3.11.4 . Aholkularitzak berregokitu eta indartu

Aholkularitza juridikoa

(184) 9. Biltzar Nagusi honetan gure praktika sindikala eraginkortzeko apustua egin dugu, anbizioz jokatu eta ekintza sozio-sindikala integrala martxan jartzea da erronka. Egun langileriak pairatzen duen erasoari aurre egiteko gaitasuna izango duen eredu.

(185) Horretarako, beharrezkoa da eskualdeetako aholkularitza juridikoak eta federazioetako eskualdeko arduradunen harreman eta elkarlana estutzea. Eguneroko auzi edota arazoan kudeaketan defentsiboki aritzera mugatuzetik ekintza sindikalari ekarpena egin eta ofentsiban kokatuko gaituen eredu juridiko sindikalera pasatzea.

